

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

---

**XXI.** edizioa

---

**2 0 0 9**

*Mi  
Rafael Koleta*

Fotokonposaketa eta Fotomekanika:

IKUR, S.A.

Inprimatzailea:

BASTER, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-1555-09

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Mugarria ezinbestekoa dugu hasiera eta bukaera duten gauza guztietan. Ipuin laburretan ere, pausoak markatu behar ditu idazleak, erabakiak hartu etengabe, hitzak ez baitatoz zerutik zuek ondo dakizuen bezala.

Ipuin lehiaketa honek ere egina du 20 urteko ibilbidea, 21 edizio guztira. Bilbon jaiotako (1611) idazlearen izena hartu zuenetik, 1989 urrunean, hainbat lan eta marrazki eder eragin ditu urterik urte etenik gabe Mikoletak.

Parte hartzaileak guztira 12.000tik gora izan zarete, denak bilbotarrak, eta sari-tutako lanekin plazaratu ditugun hogeita bat liburuetan bostehunetik gora ipuin originalak bizi izan dute inprentaren bataio pozgarria udaberrian.

Oraindik letrak lotzen ez dakiten jaioberrien abentura idatziak ezagutuko ditugu aurrerantzean ere datozen urteetan argitaratuko direnetan. Amaierarik gabekoa ematen du lehiaketa honek, zorionez.

Gaur bizi duguna iragana izango da bihar. Bai eta ez. Idatzi zenuten lehen ipuin hura beti egongo delako presente, neurri handi batean. Segi horrela, ipuin amai-gabea.

*Iñaki Azkuna*  
Bilboko Alkatea

# Sariak

*Bilboko Udaletxean, bi mila eta bederatziko apirilaren bateko arratsaldeko bostetan batuta,  
hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXI. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak,  
aurkeztutako 789 ipuinak aztertu ondoren:*

## **A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):**

1. EGUZKI ILEJALEA,  
Leire Martin Agundez,  
Pagasarribide LHI.
2. BI ANAIA DETEKTIBEAK ETA MUNDUKO DIAMANTE HANDIENA,  
Uxue Larrea Altube,  
Kirikiño Ikastola HLBHIP.
3. PIRATA GOMINOLA ETA GOMINOLAZKO ALTXORRA,  
Haitz Saez de Ocariz Borde,  
Felix Serrano LHI.

## **B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):**

1. LORE BAT OSPITALEAN,  
Ines Agirreazkuenaga Gutierrez,  
Deustuko Ikastola IPI.
2. ELASTIKOEN MERKEALDIA,  
Amaia Monsalvo Alonso,  
Gabriel Aresti LHI.
3. LIBURUTEGIAREN ABENTURA,  
Karmele Ispizua García,  
Deustuko Ikastola HLBHIP.

## **C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):**

1. ETA KITTO,  
Jone Ruiz Azkarate,  
Miguel de Unamuno BHI.
2. AHULEZIA BITXIA,  
Elai Andraka Gonzalez,  
Ignacio Ellacuria BHI.
3. NIRE IPUINA,  
Jean Bustinza García-Escudero,  
Miguel de Unamuno BHI.

## **D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):**

1. HAZI NAHI EZ ZUEN MUTILA,  
Gorka Lopez Arantzamendi,  
Gabriel Aresti BHI.
2. ASKATASUNAREN BILA,  
Eneritz García Montero,  
San Inazio BHI.
3. OROITZAPEN BELTZAK,  
Laura Gallo Lavilla,  
San Inazio BHI.

## ARGITARAGARRIAK:

### A KATEGORIA:

- URREZKO PERLA, Maite Bahillo Alvarez, Felix Serrano LHI.
- PITXER MAGIKOA, Estibaliz Corral Martinez, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- MUSIKAGAITIK ZORATUTA, Ibon Arteaga Arana, Kirikiño Ikastola HLBHIP.
- ESPAZIOKO ROBOTA, Guillermo del Pozo Garrido, Pagasarribide LHI.

### B KATEGORIA:

- GURASOAK BAINO HOBETO AMETS ON BAT, Sofia Martin Rodriguez, La Salle HLBHIP.
- LURRA ETA UNIBERTSOA, Irene Casquete Olmos, Fatima HLBHIP.
- HITZEZKO HIRIRA, Maialen Aricha de la Aya, Berrio-Otxoa HLBHIP.
- UR TANTA, Irati Abad Lopez, Felix Serrano LHI.
- UTZI NIRE ILEA BAKEAN, Nile Barandika Monasterio, Felix Serrano LHI.

### C KATEGORIA:

- ISTORIO INTERESGARRIENA ZUHATZAN, Bego Ispizua Moreno, Artxandape Ikastola HLBHIP.
- DIRUAREN LABIRINTOAREN BARNEAN, Maitane Sobrino Alonso, Artxandape Ikastola HLBHIP.
- GIZAKION ZORIONTASUNA, Ane Eunat Iturrizar Manero, Artxandape Ikastola HLBHIP.

### D KATEGORIA:

- 1944, Alberto Alonso Fernández, Ignacio Ellacuria BHI.
- MEDIKU MAGIKOA, Galder Fernandez-Vega Gonzalez, Gabriel Aresti BHI.
- EGUNERO EGUNEROKOA, Ivan Hernandez Arranz, Ignacio Ellacuria BHI.

Eta batzarra bukatutzat ematen da, Bilbon bi mila eta bederatziko apirilaren bateko arratsaldeko seietan.

*Ana de Castro Rubalkaba, epaimahaiburua*

*Lutxo Egia, epaimahaikidea*

*Xabier Gereño, epaimahaikidea*

*Jose Maria Larrea, epaimahaikidea*

*Jesus Etxezarraga, epaimahaikidea*

*Juan Ramón Madariaga, epaimahaikidea*

*Txani Rodriguez, epaimahaikidea*

*Luis Gutierrez, epaimahaikidea*

*Pedro Alberdi, epaimahaikidea*

*Nagore Layuno, idazkaria*



**A**  
**KATEGORIA**  
(LHko 3. eta 4. mailak)







# Eguizki "ilejalea"

*Leire Martin Agundez  
Pagasarribide LHI*



**O**rain dela urte asko David izeneko gizon bat herri txiki batean bizi zen, Balmasedan.

David oso potoloa eta baxua zen, baita buru soila ere. Asko gustatzen zitzaion umeekin egotea. Oso alaia zen eta beti pozik zegoen.

Arratsalde batean, David kaletik zihoala, neskato batek galdetu zion:

—Gizona, barkatu, zergatik zara buru soila?



Eta Davidek horrela erantzun zion neskatoari:

“Egun batean eguzkiak izpi gehiago nahi zituen, erakargarri egoteko. Horretarako nire ilea eta herrian dauden pertsonen ilea nahi zuen eta guri ilea kentzen hasi zen. Ia-ia jende guztia ile gabe gelditu zen. Hori zela eta, herritarrak oso haserre gelditu ziren eguzkiarekin. Ez zen inor ikusten kaleetan eta etxeetako leihoak itxita zeuden, inork ez zuelako nahi eguzkia etxeetan sartzea. Jendea manifestazioak egiten hasi zen:

—Datorrela euria! Eguzkia pikutara!

Eguzkia oso haserre gelditu zenez, su gehiago eta bero gehiago ematen zuen baina ez zen konturatzen gauza batez: Handik lasterrera, ilea erretzen hasiko zitzaiola.

Egun batzuk pasa eta gero, eguzkia konturatu zen ile gabe gelditu zela erre egin zuelako. Eguzkia lehen zegoen bezala gelditu zen eta jendeari barkamena eskatu zion baina ez zioten barkatu ile gabe gelditu zirelako betiko.”

Gizonak azalpenak ematen jarraitu zuen:

“Orduz geroztik, ile gabe gelditu ginen. Horregatik gara pertsona batzuk buru soil.”



# Bi anaia detektibeak eta munduko diamante handiena

*Uxue Larrea Altube  
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

**B**ehin baten, bi anaia detektibe egozan Bilbon. Bat Pintxi zen eta bestea Pontxo. Egun baten, kalera joan ziran eta jendea urduri eta oihuka egoala ikusi eben. Pintxi eta Pontxo zer gertatzen zen galdetzera joan ziran eta mutil batek esan eutsen:

–Guggenheim museotik munduko diamante handiena ostu dabe!!

–Bai? Noiz ostu dabe? –galdetu eban Pontxok.

–Atzo gauean, 9etan izan zan.

Anaiek koaderno hartu eta mutilak esaten ebana apuntatu eben. Mutilak, danon aurrean jarrita, jendeari esan eutson detektibeak zirala eta arazoa konpondu ahal ebela.

Detektibeek pentsatu eben: “Zelan ikertuko dogu misterioa?”

Bat-batean bururatu jaken Guggenheimeko langileei galdetzea, inork baino hobeto dakielako zelan sartu eta zelan urten museotik. Lehenengo, zaindariaren-gana joan ziran:

–Aizu, zaindari jauna, zu atzo gauean non egon zinan?

–Ni San Mamesera joan nintzan –esan eban zaindariak.







Eta Pintxik galdetu eban:

–Eta guk zelan dakigu zu San Mamesera joan zinela?

–Beitu, hemen daukat atzoko sarrera –esan eban zaindariak.

Gero, detektibeek museoko garbitzaileari galdetu eutsoen:

–Zu atzo gauean nora joan zinan?

–Ni Begoñako abesbatza entzutera joan nintzan –esan eban emakumeak.

Pontxok galdetu eutson:

–Guk zelan dakigu Begoñara joan zinela?

–Begira, hemen daukazu gonbidapena –esan zuen andreak.

–Ederto. Zu ez zara izan lapurra –esan eban Pontxok.

Azkenengoz, txartelak saltzen dauzan langileari galdetu eutsoen.

–Zu non egon zinan atzo?

–Ba, ni atzo gauean ezkondu nintzan. Beitu nire eratzun polita eta barruan atzoko data.

–Zu be ez zara izan –erabaki eben detektibeek.



Bi anaiak animoa galduta joan ziren, baina bat-batean Pupyren ezkerreko begian zezerren isla ikusi eben. Detektibeeek euren buruari galdetu eutsen: “Zer izango da hori?”

Eskailerak hartu eta igo ziran. Txori baten kabi bat zegoen eta hiru txorikume egozan barruan. Bat-batean, bele haserre bat etorri zan euren atzetik, ze bere kumeak ostuten egozala pentsatzen eban. Bi anaiak korrikan hasi baino lehen, diamante famatua ikusi eben kabi barruan! Bilboko suhiltzaileei deitu eta azkar baten



etorri ziran kamioi gorri baten. Kontuz-kontu txorikumeak kendu eta munduko diamante handiena hartu eben.

–Hurra! hurra! Eskerrik asko Pintxi eta Pontxo! –hasi ziran danak oihuka. Eta oso pozik joan ziran etxera euren lanagatik.

# pirata gominola

## eta gominolazko altxorra

Haitz Saez de Ocariz Borde  
Felix Serrano LHI

**A**spaldi-aspaldi pirata bat bizi zen.  
“Pirata Gominola” zuen izena.

Osoa gominolazkoa zen.  
Gailetak adabaki bat zeukan.  
Bere begia txikilezkoa zen.  
Gozokizko sudur bat zeukan.  
Eta palmerazko aho bat.



Berak gominolazko altxorra (gailetak) bilatu  
nahi zuen bere tripulazioarekin.  
Bazeukan txokolatzeko mapa bat  
bere txokolatzeko itsasontzian.  
Baina horrek arrisku handi bat zuen: ume dastatzaileekin topatzea.  
(umeak bezalakoak ziren, baina aho handiekin)

Baina dena egingo zuten altxorra lortzeko eta altxorraren bila abiatu ziren.  
Bat-batean, bere ilobak gomi-telefonotik deitu eta galdetu zion:  
—Zurekin joan al naiteke?  
Pirata Gominolak baietz erantzun zion eta beraren bila joan ziren.  
Gominolazko herrira ailegatu zirenean herritarrak abesti hau abesten hasi ziren:  
—Pirata gomi, gomi, gominola...

Hurrengo egunean, Pirata Gominolaren ilobarekin (Gozo izenekoa) altxorraren bila abiatu ziren. Bat-batean Gozori gose handi-handia sartu zitzaion eta altxorraren mapa hartu eta jan egin zuen. Pirata Gominola maparen bila ibili zen baina ez zuen aurkitu.

—Gozo, ikusi duzu altxorraren mapa? —galdetu zion Pirata Gominolak.

Gozo oso urduri jarri zen eta esan zuen:

—Ni..., ni..., ni..., ni ez naiz izan.

Pirata Gominolak Gozok mapa jan zuela konturatu zen eta esan zuen:

—Zuk jan duzu mapa?

—Bai. Jan egin dut! —erantzun zion Gozok.

Orduan Pirata Gominola konturatu zen Gozoren sabelean maparen marka zegoela.



Urrunean itsasontzi bat agertu zen.

Ume dastatzaileen itsasontzia!

Eta ume dastatzaileak itsasontzia aboratu zuten.

Eta ume dastatzaileek gailera bat lapurtu zuten.

Orduan ume dastatzaileak beraien itsasontzira bueltatu ziren.

Pirata Gominola ume dastatzaile bati txantxarra atera zitzaioela konturatu zen.

Eta gailetak ume dastatzaileen ahora erregalitzak botatzen hasi ziren.

Eta Pirata Gominolak irabazi egin zuen.

Amaitu ondoren altxorraren uhartera joan ziren.

Uhartetik hiru ordu ibili ziren.

Han gauza asko zeuden baina altxorrik ez.

Gozoren sabelean ondo begiratu zuten eta mendi baten gainean zegoen.

Mendia igotzen hasi ziren eta tontorrean hippy bat aurkitu zuten.

—Bakea eta maitasuna —esan zuen.

Pirata Gominolak galdetu zion:

—Badakizu non dagoen gominolazko altxorra?

Hippyak erantzun zuen:

—Zure atzean dago, laguna, zuhaitz horretan!

Pirata Gominolak buelta eman zuen eta PPPUUUUNNN!!!

Koskorroi itzela hartu zuen.

Eta altxorra zuhaitzetik jausi zen.







Altxorra gezurrezkoa zela konturatu ziren. Hippyak zeukan benetako altxorra!!!

Baina ez zen hippy bat, ume dastatzaileen erregea baizik. Orduan denak bota ziren erregearen gainera eta atxilotu zuten. Gero benetako altxorra hartu zuten. Orduan denak salto egiten hasi ziren.

Azkenean gominolazko altxorra lortu zuten.


Baina bat-batean, txakur erraldoi bat agertu zen, altxorraren zaintzailea.

Orduan denok hasi ziren korrika itsasontzira ailegatu arte. Eta itsasontzian joan ziren.

Hortik aurrera ez du inork ikusi Pirata Gominola eta bere tripulazioa.



**Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan  
eta atera dadila Indautxuko plazan**



# URREZKO PERLA

*Maite Bahillo Alvarez  
Felix Serrano LHI*

**B**azen behin marigorringoen erresuma bat, Marilanda izenekoa. Marigorringoak eta beste animalia batzuk han bizi ziren. Hango erregina oso dotorea zen: argala, ile leuna, altua eta hegoak erresumakorik distiratsuenak ziren.

Ipuin honetako protagonista Pekita izeneko marigorringo bat zen. Bera oso gaztea eta potxoloa zen. Bere ilea kizkurra zen eta ezkerreko hegoan peka berde txiki bat zeukan; horregatik deitzen zioten Pekita.

Berak hiru lagun zituen: Azkar eta Felix izeneko marigorringoak eta Mortzi izeneko saguzarra. Mortzi oso lotsatia zen, beldurtia baina zintzo-zintzoa. Azkarrek betaurreko horiak zituen eta azkar-azkarra zen; horregatik deitzen zioten Azkar. Felixek betaurreko urdinak zituen eta oso ausarta zen.



Egun batean marigorringoen erregina gaixotu zen. Hegoek kolorea galdu zuten eta erresumako mediku ospetsuenek esaten zuten “hego maltzurra”ren gaixotasuna zuela eta urrezko perla xurgatu behar zuela sendatzeko. Baina denek zekiten perlak aspaldidanik desagertu zirela marigorringoen erresumatik. Orduan mago batek esan zuen bakarrik perla bat geratzen zela munduko beste aldean!

Erreginak bazekien Pekita, Felix, Azkar eta Mortzi erresumako ausartienak zirela eta laguntza eskatu

zien. Perla bilatzera joan behar zuten, baina horretarako Marilandatik irten behar ziren.

Hurrengo egunean koadroen erresumara joan ziren eta Pekitak hango erregeari galdetu zion:

–Koadroen erresuman dago urrezko perla?

–Munduko probarik zailena, inork lortu ez duena, gaintzen baduzu, esango dizut –erantzun zion erregeak–. Koadroak leihoak dira eta leiho batetik bakarrik atera ahal zarete, bestela hemen geldituko zarete betirako.



Pekitak koadro bateko izkina batean, oso ezkutatuta, mari-gorringoaren hego txiki-txiki bat ikusi zuen. Bultzatu zuen eta koadroa zabaltu zen. Orduan, proba gaintu zuen. Baina erregeak esan zien:

–Ez, hemen ez dago urrezko perla baina aukeratu duzun leihotik irten ahal zarete bilatzera.

Koadroen erresumatik joan zirenean baso batean agertu ziren. Baso hori oso handia zen eta zuhaitz asko zeuden. Oso altuak ziren eta ez zen eguzkiaren argia zorura heltzen; horregatik deitzen zen Baso Iluna.



Bilatzen hasi ziren eta Azkarrek eulitxo bat ikusi zuen zuhaitzen artean. Bat-batean Felixek oihu bat bota zion Azkarri ea aurkitu zuen perla galdetzeko eta Azkarrek esan zion ezetz. Baina despistatu zen eta eulitxoa galdu zuen. Azkar pixka bat aurrerago joan zen bere bila eta putzu bat ikusi zuen. Pekitari eta Felixi abisatu zien. Denak batera bilatzen hasi ziren putzuan. Pekita erdiraino joan zen igeri igiten eta hondo-hondoan urrezko perla aurkitu zuen.



Bueltatzeko, Mortziren lepora igo ziren hegaz egiten zekielako eta bidaia oso eroso izan zen. Basotik irten ziren eta Koadroen erresumatik pasatu ziren Mortziren gainean. Gero, marigorringoen erresumara heldu eta perla eman zioten erreginari.

Erreginak perla xurgatu zuen eta bere hegoek berriro koloreak hartu zituzten: sendatu-

rik zegoen!

Mesede hori egiteagatik erreginak poltsa bat gozoki eman zien.

Hala bazen edo ez bazen, sar dadila kalabazan eta atera dadila Indautxuko plazan.



## PITXER MAGIKOA

*Estibaliz Corral Martinez  
Kirikiño Ikastola HLBHIP*

**B**ehin batean bazegoen errege bat hiru seme zeuzkana. Erregea zahartzen hasita zegoen eta ez zekien ze seme aukeratu errege izateko. Horregatik, egun batean, hiru semeei deitu eta esan zien:

–Hiruretako bat aukeratu behar dut eta horretarako gauza batzuk edo animalia batzuk ekarri behar dizkidazue.

Hirurak konforme egon ziren aitagaz. Eta berriro hartu zuen erregeak berba, holaxe:

–Bihar, goizeko hamarretan, herriko plazan esango dizuet zer egin behar duzuen. Orain joan ahal zarete.

Erregeak bere soldadu bati deitu eta esan zion:

–Abisatu nire herriari bihar gertatuko dena eta denek joateko agindu. Ah! Eta ez ahaztu esaten ordue eta lekua.

–Bai, jauna –erantzun zion soldaduak. Eta erreberentzia bat eginez joan egin zen.

Biharamunean hiru semeak, erregea eta herri guztia plazan zeuden. Orduan erregea berba egiten hasi zen:

–Kaixo, herri maitea. Gaur nire semeei errege izateko zer egin behar duten esango diet. Pitxer polit bat ekarri behar didazue.

–Bale aita –esan zuen Arturok (anai handiena), bere zaldian igo eta herri hurbilenerantz abiatu zen.

–Ados, aita –esan zuen Tiloc (anai ertaina) eta bere zaldian igo eta joan zen.  
–Ondo –esan zuen Taik (anai txikiena) eta bere zaldian igo eta esan zion:  
–Goazen Txon, goazen aititaren herrira.

Baina Txon ez zen aititaren herrira joan, basora baizik. Eta Taik esan zion Txoni:

–Txon!! Goazen herrira, ez basora!!

Baina Txonek ez zion kasurik egin eta basora joaten jarraitu zuen. Taik ez zekien Txonek nora eramango zuen.

Txon etxe zahar baten aurrean gelditu zen eta bat-batean etxe zaharreko atea zabaldu eta bona bat agertu zen:

–Etorri, etorri, mutiko –esan zion.  
–Ez, banoa. Nire zaldia erratu egin da.  
–Lasai, lasai. Bazkaldu hemen eta gero joango zara.  
–Bueno –esan zuen Taik– geratu egingo naiz baina gero banoa.  
–Oso ondo –esan zion bonak– etorri, sartu beldur barik.

Eta printze txikia sartu egin zen. Orduan, beste bona batzuk ikusi zituen. Eta besteei bona erreginak esan zien:

–Hartu mutiko honen zaldia eta eramán garbitzera eta prestatu bazkari bikaina mutikoarentzat! Etorri, mutiko, erakutsiko dizut zure gela.

–Eskerrik asko, andrea –esan zion printze txikiak.

Eta gela polit batera eramán zuen eta esan zion:

–Bazkaria prest dagoenean, abisatuko dizut.

–Ondo –erantzun zion Taik.

Eta ordu erdi pasatu zenean etorri zen bona bat esaten:

–Bazkaria prest dago, mutiko.

–Orain jaitsiko naiz.

Bazkaldu zuenean Taik pentsatu zuen: “Erreginari joan behar naizela esan behar diot. Bihar aitaren gazteluan egon behar dut pitxerragaz.” Eta erreginarengana joan zen esatera:

–Erregina, pitxer polit bat aurkitzera joan behar naiz.

–Lasai, zu geratu hemen gaua pasatzen. Gainera guk badaukagu pitxer polit polit bat hemen. Etorri, erakutsiko dizut.

–Ederto –erantzun zion Taik.

Bonak kortara eramán zuen eta han oiloek edateko erabiltzen zuten pitxerra hartu eta esan zion:

–Tori pitxer polit-polit bat.

–Baina apur bat zaharra da, ezta? –esan zion Taik.

–Bai, baina oraindik ederra da –erantzun zion bonak.

Eta Taik pentsatu zuen: “Zaharra eta ustelduta dago baina aítak beti esaten du minik ez egiteko eta hain onak izan direnez nirekin, oso polita dela esango diot.

–Oso polita da, hartuko dut! –esan zion Taik bonari.

–Gustatu zaizunez, eramango gaituzu bona guztiak zure gaztelura?

–Bai, baina non?

–Zu lasai, gurdi batean. Baina hartuko duzunez, pitxerra lotuko dizut. Hartu egunkariko papera mesedez.

–Tori.

–Eskerrik asko.

Beste bonak gurdia Txoni lotu eta gaztelura abiatu ziren.

Arturo gazteluan zegoen eta aitak bere pitxerra ikusi zuenean esan zuen:

–Seme, baina ze polita den! Urrea da. Ze polita!

Tilo heldu zenean, bere pitxerra erakutsi zion aitari eta aitak esan zion:

–Baina seme, ze pitxer polita. Urrea eta zilarra da. Bai polita!

Eta Tai heldu zenean bere aita eta anaiak ahozabalik geratu ziren. Orduan Taik atzera begiratu zuen eta ikusi zuen bonak neska bihurtu zirela eta gainera polit-politak ziren eta erregina oso polita zegoen. Tai erregina maitemindu zen eta, Tai-ren pitxerra anaien pitxerrak baino politagoa zenez, errege bihurtu zen eta erreginarekin ezkondu zen.



# MUSIKAGAITIK ZORATUTA

*Ibon Arteaga Arana  
Kirikiño Ikastola HLBHIP*


**B**azan behin Jon izeneko mutil bat 11 urte zituana eta musika entzutea asko gustatzen jakona. Beti ipintzen eban musika topera eta auzokoak, gutxienez astean hiru alditan, joaten jakozan kexatzera.

Gurasoek behin eta berriz esaten eutsoen gor geratuko zala baina ez eban kasurik egiten.


Egun batean, izugarrizko belarriko mina izan eban eta guztiek pentsatu eben musikagaitik zala. Amak gehiago ez entzuteko esan eutson, baina MP4a erosi eban ama ez konturatzeko musika entzuten egoala.

Amak pentsatzen eban musika ez entzuten sendatuko zala baina hiru egun geroago, ez zala hobetzen ikustean, otorrinoarengana eroatea erabagi eban.

Otorrinoak esan eutsien itzelezko infekzioa eukala belarrarian eta ez zala musikagaitik izan, uger lekuan belarriko tapoirik gabe ibili zalako baino.



# ESPAZIOKO ROBOTA




Guillermo del Pozo Garrido  
Pagasarribide LHI

**H**au robot baten istorioa da. Beste planeta batean jaio zen duela hiru urte. Bere planetan robot guztiak soldaduak ziren, baina berari ez zitzaion gustatzen besteei kalte egitea. Orduan, planeta hartatik joan eta gure planetara iritsi zen.

Gure planetan mutil bat aurkitu zuen eta oso lagun onak egin ziren. Mutil hori politikari baten semea zen.



Egun batean, aitak robota aurkitu zuen garajeetan. Orduan, robota beldurto eta mutilarengana joan zen. Geroxeago, aita umearengana joan eta galdera batzuk egin zizkion: “Nor da robot hori?”, “Nongoa da?”, “Ona da?”, “Arriskutsua da?” Mutilak istorio osoa kontatu zion eta robotak bere planetan gertatu zena kontatu zion aitari.



Aita politikaria zenez, beste politikari batzuekin izan zuen bilera batean, etxean entzundakoa esan zien eta espedizio baten espaziora joan ziren. Planeta hartako robot guztiak espaziora bota zituzten eta robota han gelditu zen.

Planeta horrek orain ez dauka gerra gehiago.

**B**  
**KATEGORIA**  
(LHko 5. eta 6. mailak)







## Lore bat ospitalean

*Ines Agirreazkuenaga Gutierrez  
Deustuko Ikastola IPI*

**K**aixo, ni lore bat naiz. Eta zer egiten dudan hemen, ospitaleko marrazki batean itsatsita? Ba, orain kontatuko dizuet.

Ni Denaberdetik nator. Denaberde mendi bat da eta han dena da berdea. Beno, guzti-guztia ez, adibidez, zuhaitzen enborrak. Ni han oso pozik nengoen loreekin eta zuhaitzekin. Egun batean ume bat etorri zen eta esan zuen:

–Begira ze lore politak dauden. Nereari eramango dizkiogu eta sendatu egingo da.

–Beharbada bai, Unai –esan zuen bere amak.

Unai oso pozik zegoen. Ez nuen ezer ulertu. Ni pixka bat triste nengoen. Unai alai zegoen.

–Ze lore politak! Nerea pozik egongo da eta sendatu egingo da –esaten zuen Unaik.

–Nor da Nerea? –galdetu zuen Loretxuk, nire lagun batek.

Hori esan zuenean hartu egin gintuen Loretxu eta ni, baina ez zion Loretxuri entzun; Loretxuk galdetzen jarraitu zuen. Azkenean Unaik entzun egin zion.

–Hitz egiten dakizue? –galdetu zigun eta guk baietz esan genion– Nerea nire lagun bat da eta egun batean jolasten ari ginela gaixorik jarri zen, oso gaixorik. Orduan ospitalera eraman zuten. Atzo pentsatu nuen lore batzuk eramateak pozik jarriko zuela eta zuek hartu zaituztet. Orain bai, ulertu genion.

–Unai, zergatik zaude hor atzean? –esan zion bere aitak– Benga, etorri.



–Esango diet hitz egiten dakizuela? –Unaik guri.

–Ez esan amari eta aitari, baina Nereari esan ahal diozu.

Unairen etxera heldu ginenean edalontzi batean sartu gintuen Unaik. Edalontzia urez beteta zegoen eta arratsaldea edaten eta kontu kontari ibili ginen Loretxu eta ni. Ura bukatu zitzaigunean ez genekien zer egin. Ez ginen ausartu oihukatzen. Baina Unai pasatu egin zen bertatik, ura bota eta gurekin hitz egiten hasi zen:

–Zenbat edaten duzuen! Bihar ospitalera joango gara. Egia da karbono dioxidoarekin, eguzkiaren energiarekin, urarekin eta gatz mineralekin egiten duzuela elikagaia? –eta guk baietz –Eta fotosintesia egiten duzuela? –eta berriz ere baietz –Zergatik ez duzue gauean karbono dioxidoa hartzen? –guk argirik ez zegoelako erantzun genion.

Hurrengo egunean Unai, Loretxu eta ni ospitalera joan ginen. Unaik Nereari eman zizkion loreak, hau da, Loretxu eta ni.

–Ze politak –esan zuen Nereak.



–Hitz egiten dakite eta eman ura, asko edaten dutelako.

–Benetan?

–Bai! –esan genuen.

Nerea oso pozik jarri zen. Hain pozik zegoen ze hurrengo egunean sendatu egin zen. Joan baino lehen marrazki bat egin zuen. Marrazkian hauxe zegoen: zelai bat, bi zuhaitz eta katu bat. Ez zegoen lorerik. Baina orduan gu hartu eta hor itsatsi gintuen.

Ospitalera datozen pertsona guztiak oso pozik jartzen dira gu ikusitakoan eta hurrengo egunean osatu egiten dira. Horregatik, ni oso pozik nago hemen.

## Elastikoen merkealdia

Amaia Monsalvo Alonso  
Gabriel Aresti LHI

**K**aixo! Ni Zarako elastiko bat naiz eta merkealdietan sufritzen dugun bortizkeriari buruzko istorioa kontatuko dizuet.



Urtarrilaren 7an hasi ziren beherapenak Bilbon. Ni dendako apalategian oso ondo tolestuta nengoen, goizeko lehenengo orduan. Hamarretan, nire dendari maitagarriak dendako atea zabaldu zuen. Hortik aurrera hasi ziren nire komeriak!

Niregana eskuak hurbiltzen hasi ziren; batzuk goxoak eta berotsuak ziren; beste batzuk, ordea, latzak eta hotzak; baina

nire bihotza taupadaka zebilen ea zein gorputzetan jantziko nindukeen zain.

Aukeratzen ninduten bitartean, beste lagun elastikoekin hitz egiten nenbilen. Batek iazko beherapenetan tiroak izan zirela kontatu zidan eta beste batek bere lagun bat hil zutela esan zigun.

Goiz osoan ibili ginen apaletik aldagelara, zoramen korapilatsuan.

Ufff! Azkenean, nire dendariaren esku maitagarrien artean aurkitu nintzen. Maitasunez, nire ximur guztiak leundu zituen eta kontu handiz tolestu ninduen.

–Ai! Zein atsedenaldi ederra! –entzun nion dendari maitagarriari, eta bostetan denda berriro zabalduko zutela esan zuen.

Bere atzetik ibiltzen saiatu nintzen, handik alde egiteko asmoz, baina ez dut hankarik, ezta zapatarik ere! Ez nuen irtenbiderik. Lasaitzearren, amets gaizto bat baino ez zela esaten nion neure buruari.

Arratsaldeko bostak heldu ziren eta dendako lasaitasuna amaitu zen. Neska batek apalategitik hartu eta pi-pi-pi-pi!!! Dendari maitea korrika joan zen ni salbatzera eta segurtasunezko langilea ere atera zen nire atzetik. Azkenean, ni hartu eta apalategian utzi ninduen dendari maiteak ondo tolestuta. Baina ez nintzen luzarotan horrela egon.

Arratsaldeko zazpitan neska batek hartu ninduen eta aldageletara eraman. Han probatu ninduen eta ondo geratzen nintzaion. Orduan, bere amak erosi ninduen eta etxera eroan. Orain neska horren etxean bizi naiz eta ondo tratatzen naute.



## Liburutegiaren abentura

Karmele Ispizua García  
Deustuko Ikastola HLBHIP

**L**iburutegia oso leku aproposa da irakurtzeko, etxeko lanak egiteko, informazioa bilatzeko...

Baina... ezagutzen duzue Valmartinoko liburutegia? Oso berezia da, ez da beste liburutegiak bezalakoa. Besteetan ezin da hitz egin, ezin da jolastu... Honetan bai. Luisak, liburutegiko liburuzainak, magiazko liburuak erosten ditu eta magia egiten irakasten digu. Oso ondo pasatzen dugu, baina liburutegian sartzeko

pasahitza behar da. Pasahitza zein den ez dizuet esango. Abentura guztia irakurri beharko duzue, letra handi-handi batzuk elkartu eta pasahitza zein den jakingo duzue.

Ni sartu nintzen lehenengo aldia martxoaren 11n izan zen, nire urtebetetze egunean. **Narok**, nire lagunik onenak, sartzeko esan zidan eta ni sartu egin nintzen. Lehenengo, beldurra eman zidan liburuzainak sorgina





zirudielako baina gero **Naroak** dena azaldu ziran: Luisa sorgina zela eta magia era-kusten zuela esan zidan. Ni ostiralero joaten nintzen **Naroarekin**. Baina egun bate-an, ba al dakizue zer gertatu zitzaigun?

Nik liburutegira sartu nahi nuen, eta **Naroak** ere bai, baina atea ez zen zabal-tzen, eta barrutik oihu arraro bat ateratzen zen:

–**LAGUNDU MESEDEZ!!!** –entzuten zen barrutik.

–Hori Luisaren ahotsa da –esan zidan **Naroak**.

–Lagundu behar diegu!!! Ez dago bakarrik, ahots gehiago entzuten dira –erantzun nion **Naroari** oso ikaratuta.

–Atea bota behar dugu sartze**k**o. Baina nola? –galdetu nion nik atea bota-tzeko modu bat pentsatuaz.

–Badakit, –esan zidan **Naroak**– jarraitu niri!!!

Nik **Naroari** jarraitu nion baina ez nekien zer zegoen pentsatzen. Bat-batean ikastolako zuzendaria, Julieta, etorri zen eta zer egiten genbiltzan galdetu zigun. Guk ez genekien zer esan baina nik hau erantzun nion:

–Gu zer gabiltzan egiten? Ba... idazkaritzara joango gara nire ahizpari... jer-tse bat galdu zaiolako.

–Benetan? –galdetu zigun zuzendariak serio-serio.

–Bai, benetan.

–Bueno ba, agur!!!

–Agur!!! –esan genion biok irribarre eginez.

Nik **Naroari** jarraitu nion, eta **Naroak** idazkaritzaraino eramane ninduen. Idaz-karitzan ia euritako bat uzten ziguten galdetu genuen eta zuzendariaren laguntzai-leak baietz esan zigun. Orduan korrika joan ginen liburutegiraino eta han berriro entzun genuen:

–**LAGUNDU MESEDEZ!!!** –baina ahots ba**k**arra zen oraingoan.

–**Naroa**, eta orain, zer egin behar dugu? –galdetu nion nik euritakoa ematen nion bitartean.

–Zuk niri heldu, pasahitza esan eta barrura sartuko gara.

Eta pasahitza esan zuen. Atea ireki zen... Ni lehenengo sartu nintzen.

–Sartu **Naroa**!!! Begiratu zer dagoen han!!! –esan nion nik harrituta.

Oihua leku arraro batetik zetorren eta **Naroak** bazekien non-dik.

–Liburu batean sartu za**r**ete? –galdetu zion **Naroak** Luisari.

–Bai, Magia Pituki liburuan sartu gara. Lagundu mesedez!!

–Bagoaz!!!

Hitz magikoak esan, euritakoa astindu eta liburuaren barrura sartu ginen.

–AaAaAaAaAa!!! –oihukatu genuen **Naroak** eta nik –liburuaren barrura sar-tzen gaudela uste dut...!!!

–Bai, lurra ikusten dut, eta han Luisaren lepokoa dago...

–Non zaudete? –galdetu nion nik oiuhukatzen Luisari eta berarekin zeuden neska-mutiei.



–Hemen, bosgarren kapituluan!!! –erantzun ziguten.

–Ez mugitu, horra goaz oraintxe bertan!!!

Lehenengo kapituluan herrialde bitxi bat ikusi genuen, Jokoen herrialdea; bigarrenean Loreen herrialdea... Eta bosgarren kapitulura, Ezpaten herrialdera, heldu ginenean Luisa eta beste neska-mutilak ikusi genituen. Soldadu batek Luisa ezpatarekin buruan jo baino lehen... seigarren kapitulura joan ginen korrika.

–Zergatik ez diguzue esan ezpaten herrialdean zeundetela? Ezpatak oso arriskutsuak dira –esan zion **Naroak** Luisari.

–Beldur handia neukalako eta ez nekielako hain txarra izango zenik –erantzun zuen Luisak oso triste.

–Berdin du, inporta dena da denak ondo zaudetela. Nik badakit nola irten hemendik –esan nien irribarre eginez–, hamargarren kapitulura joango gara, han hitz magiko guztiak daude-eta.

Orduan hamargarren kapitulura joan ginen eta han zeuden hitz magiko guztiak bilatzen hasi ginen, hitz magiko egokiak aurkitu arte.

–Aurkitu ditut, –esan nuen nik oso pozik– hemen daude.

Orduan denak hitz magikoak esaten hasi ginen: **TATATAPALASA...**

Horrela irten ginen liburutik denak...

–Kontatuko diguzue nola sartu zareten liburu arraro horretara? –galdetu nien nik entzuteko irrikaz.

–Bai, –erantzun zigun Luisak– baina hori kontatu baino lehen jantokira jatera joan behar duzue, ordua da-eta.

–Gero, bostetan, igoko gara eta dena azalduko diguzu, ados? –galdetu nion nik Luisari.

–Bai, gero arte!!!

–Agur!!! –erantzun genion denok batera.

Bostak heldu zirenean denok liburutegira joan ginen, Luisak gertatutakoa kontatzeko. Orduan Luisak gertatutakoa kontatu zigun:

–Ni liburutegian nengoen eta Janizek, magia ikasten dagoen ume batek, pertsona bat arrain bihurtzeko zer hitz magiko esan behar diren galdetu zidan. Orduan nik hitz arraro bat esan eta bat-batean ni eta nire inguruan zeuden guztiak liburuarren barruan sartu ginen!!! Eta zuek, nola sartu zarete? –galdetu zigun Luisak.

–Hitz magiko bereziak esanez eta euritakoa astiro-astiro astinduz.

Handik aurrera hitz magiko arraro gehiago ez genituela esango aitortu genuen eta gure hitza bete egin genuen.



# Gurasoak baino hobeto, amets on bat

*Sofia Martin Rodriguez  
La Salle HLBHIP*

**B**azen behin mutil bat Gorka izena zuena. 10 urte zituen eta Bilbon bizi zen. Egun batean bere lagun bati jostailu bat oparitu zioten eta berak hobeago bat nahi zuen. Beti nahi zuen hoberena: arropa, jostailuak... Gurasoek ez zeukaten diru askorik baina bere umea ondo bizitzea nahi zuten eta dena erosten zioten. Horrela astero. Ez zekiten “ez” esaten.

Egun batean Gorkak lagun baten motxila nahi zuen. Baina bere gurasoek ezin izan zioten erosi. Gorka haserretuta oheratu zen. Ez zekien zerekin egingo zuen amets.

Lo geratu eta ametsetan hasi zen.

Afrikan zegoen familiarekin lastoz eta buztinez egindako etxe batean. Ez zituzten jostailuak, bakarrik makilak. Gainera bere anai-arrebak zaindu behar zituen. Gosaltzeko ahuntz esnea zeukaten. Askotan ezin zuten denak askaldu, 14 pertsona zirelako etxean. Afaltzeko egunero zeukaten arroza. Arratsaldeetan animaliak harrapatzera joaten ziren osabarekin. Eta gauetan aitona aitzoneko ipuinak kontatzen zizkien. Zoriontsuak ziren baina zaila zen horrela bizitzea.

Bat-batean esnatu eta bere logela begiratu zuen. Afrikarrek ez zituztela hainbat gauza eta berak asko zituela konturatu zen. Jende askok berak baino gauza guxtiago zituen eta lotsatu egin zen.

Egun horretatik aurrera ez du gauza gehiagorik eskatu. Gurasoei ezinezkoa iruditzen zaie: beraiek lortu ezin izan zutena amets batek lortu du.

Harrezkero Gorkak ez du gehiago eskatzen eta arropa, txiki geratzen zaionean, afrikarrei bidaltzen die.

Gaur egun gurasoak poz-pozik daude Gorkarekin.

### AMAIERA



# Lurra eta Unibertsoa

Irene Casquete Olmos  
Fatima HLBHIP

**B**azen behin neskatxo bat, Leire, hamabi urtekoa eta izadiarekiko maitasuna zuena.

Egun eguzkitsu batean zelai batera joan zen. Dena zikin zegoen, beirazko botilak belarrean, paperezko zakarrontzia plastikoz beteta... eta abar. Oso triste jarri zen, horrek Lurra zikintzen zuelako.

Hurrengo egunean, eskolara joan zen eta Xabi bere lagun minarekin hitz egin zuen:

- Kaixo Xabi, zelan asteburuan? -galdetu zuen Leirek.
- Ondo, eta zu? Zer egin duzu? -erantzun zion Xabik.
- Zelaira joan nintzen eta dena zikin zegoen.
- Ze lastima! Zer edo zer egin behar dugu hori ez gertatzeko, ez da?
- Bai, ideia ona lagun.

Egun horretatik beste pertsona batzuekin talde bat egitea pentsatu zuten. “Garbi onera eta betikora” deitzea pentsatu zuten. Leirek bere lagunei esan zien eta Xabik bereei. Taldearen helburua zen asteburuetan hiritik joatea: batzuk parkeetatik, beste batzuk zelaietatik... Dena garbitu behar zuten.




Hiriko udalak pentsatu zuen haien lanagatik ordaintzea, baina umeez ez zuten hori nahi hiriarentzat beharrezkoa zelako.

Hortik aurrera, Lurra ez zela erabili eta botatzeko konturatu zen jendea eta garbiagoa izan zen: zaborra edukiontzira botatzen zuen, txakurren kaka biltzen zuen...



Lurra garbiago zegoen denen laguntzagatik eta horrek Leire alaitu zuen.

Ilargi beteko gau batean zelaian etzanda, Leirek eta bere lagunak zerurantz begiratu zuten. Oso polita zen izarrez beteta zegoelako. Leirek ilargia begiratu eta aurpegi irribartsu bat ikusi zuen.



## AMAIERA



# Hitzezko hiria

*Maialen Aricha de la Aya  
Berrio-Otxoa HLBHIP*

**B**azen behin neska eta mutil bikote bat, oso lagun onak zirenak. Neska Maria deitzen zen eta mutila Xabi. Egunak pasatzen ziren eta ez zen ezer gertatzen. Baina egun batean... jolasten zebiltzan momentu batean, txabola txiki bat ikusi zuten. Ezin zuten ikusten zutena sinetsi.

Maria igo eta Xabiri esan zion:

–Hey, Xabi! Igo hona. Hemen pila bat liburu, hitz askorekin, daude.

Orduan, Xabi igo eta pentsatu zuen: “Asko gustatuko litzaidake hitzezko hiri batera joatea”.

Bat-batean haize bolada bat altxatu zen. Orduan, denboran bidaiatzen ari zirela konturatu ziren.

Hitz bat hurbildu zitzaion eta hau esan zien:

–Kaixo, hitzen hirian zaudete, eta nik “kaixo” dut izena.

Eta biak batera, harrituta esan zuten:

–Ooh!

Hori gertatu eta gero, beste bi hitz agertu ziren. Lehenak, bat-batean:

–Kaixo, ni “sustoa” deitzen naiz.

Bigarrena motel-motel hasi zen hurbiltzen:

–Kaixo, ni... “makal”... deitzen... naiz...

Maria eta Xabi barrezka hasi ziren horrela:

–Ja, ja, ja, ja.

Arratsalde osoan egon ziren hitzezko hirian. Horiez gain, hitz desberdin asko ezagutu zituzten. Gaua etorri zenean etxera bueltatu ziren.

Hurrengo egunean, gosaltzen zebiltzanean, Xabik hau pentsatu zuen:

–Txakur bat edukitzea gustatuko litzaidake.

Orduan Mariari esan zion:

–Hitzen hirira bueltatu nahi dut eta txakur hitza hartu.

–Bale, nik ere joan nahi dut.

Egunero hasi ziren joaten hitzen hirira.

Maria eta Xabi hil zirenean beste bi umek, Ionek eta Verónicak, txabola hori ikusi zuten. Eta berdin gertatu zen, hitz gehiago ezagutu zituzten.

Hauxe gertatzen zen: ume horiek hiltzen zirenean beste ume batzuk aurkitzen zuten txabola.

Ia, nork geldituko zituen ume horiek...

### AMAIERA





## Ur tanta

Irati Abad Lopez  
Felix Serrano LHI



*Plisti-plasta, plisti-plas, mela-mela eta blai-blai...* 

**-E**ne! Hemen zaude? Ez naiz konturatu!  
–Badakizu nor naizen? Ez nauzula ezagutzen? Begira, ni Tantatxo naiz, oso ur tanta txikia eta bidaiaria. Beti hemendik hara ibiltzen naiz... Nahi baldin baduzu, kontatuko dizut egindako abenturaren bat.

“Nire urezko lagunekin bizi nintzen poz-pozik hodei batean. Denok elkarrekin mugitzen ginen airean zehar eta aurkitzen genituen ur tantak gurekin geratzen ziren. Gero eta lagun gehiago ginen eta, noski, gure hodeia gero eta handiagoa. Behin batean hodeiak, bere pisuak eraginda, mina hartu eta negarrez hasi zen... Horrela, ordura arte lasai bizi izan ginen tantok malkoekin jausten hasi ginen eta herrialde desberdinetan sakabanatu ginen: batzuek laku batean amaitu zuten, beste batzuek lurzoruan... eta nik lur azpiko errekatxo batean.

Luzaro indarrez igeri egin ondoren iturri batera heldu nintzen. Ez dakit nola baina, heldu bezain laster, plastikozko ontzi txiki batean sartu ninduten. Ez zen batere erosoan han egotea: estu-estu eta mugitu ezinik. Gainera, botila supituki mugitzen hasi zen.

–Ama! Zer gertatzen ari da? –galdetzen nion beldurtuta neure buruari.

Botila irauli egin zen eta nik, erdi zorabiatuta, kobazulo gorri eta beldurgarri bat ikusi nuen irteeratik. Bere barruan suge likatsu eta gorrixka bat mugitzen zen, ni noiz eroriko zain. Gero eta hurbilago zegoen eta nik ezin nuen ezer egin plastikozko ontzian geratzeko. Hurbilago... hurbilago... hurbilago... eta barrura!

Sugeak ez zidan kosk egin. Bere albotik pasatu nintzen eta... ZAS! Tanta guztiak txirrista ilun eta bero batetik jausi ginen arrapaladan. Ez pentsa, ez zen gauza dibertigarria zuku likatsutan erori baikenen. Hori nazka! Han barruan dena mugitzen zen, tsunami bat zirudien.

Adorez, putzutik irtetea lortu nuen hodi mehe batetik. Bizitza salbatu nuen, baina ez nituen ikusten nirekin etorritako beste ur tantak eta bakar-bakarrik sentitzen nintzen. Tristaturik, lokartu nintzen.

Hurrengo egunean, norbait hurbildu zitzaidan. Beste ur tanta bat zen!

–Kaixo! Nola deitzen zara?

–Egun on... Ni Tantatxo naiz.

–Nahiko goibel ikusten zaitut. Nire laguna izan nahi duzu? Hemen, bakar-bakarrik nabil.

–Bai!! Egia esan, neu ere oso triste nago.

–Orduan –eskua luzatu zidan– lagunak?

–Lagunak.

Blai eta biok oso lagun minak egin ginen. Egunak igaro genituen jolasten, hitz egiten eta barre egiten. Izan ere, zoriontsua izan nintzen han barruan. Baina egonaldia ez zen luzea izan, ez. Egun batean soinu arraro bat entzun genuen.

–Giltzurrunak omen dira –adierazi zidan Blaik– Antza, giltzurrunek likidoak zurgatzen dituzte.

Entzun eta gertatu. Amen batean giltzurrun batek harrapatu ninduen. Nik Blairekin geratu nahi nuen baina bere eskuari tinko heldu arren, giltzurrun erraldoi horrek banandu egin gintuen.

–Blai! Nire lagunik maitena! –oihu egin nion– Etorri nirekin!

–Ezin dut! Beste ur tantek ez didate zugana iristen uzten!

–Blai!

–Tantatxo, ez zaitut inoiz ahaztuko!

Egun hartatik nire Blai maitagarria daramat bihotzean. Berak esan zidan bezala, neuk ere ez dut inoiz ahaztuko.

Nire abentura, ordea, ez zen hor bukatu. Giltzurrunetik beste igerileku antzeko toki batera ailegatu nintzen, eta han ordu batzuk pasatu ondoren... FLISSS! PLAS! txorrotada batekin irten nintzen berriro argitara.

Egia esan, argia ezin nuen ikusi beste laku batera erori bainintzen. Bat-batean ur jauzi batek harrapatu ninduen eta zitzu bizian eraman ninduen hodei handi batetik... ibai batera heldu nintzen arte.

A ze poza arrainak ikustea! Hori lasaitasuna! Banekien ibaiak itsasora eramango ninduela. Beraz, ibai azalean etzan nintzen, trankil eta lasai, ozeanora iritsi arte.

Oso ondo moldatu nintzen hango bizitzara, beste ur tantekin, arrainekin eta oskolekin jolasten. Baina oraindik nire lagun minaren falta nabaritzen nuen. Egun batean (ez duzu sinestuko) ahots ezagun bat entzun nuen olatuen artean.


–Tantatxo! Tantatxo!

–Blai! Hemen zaude! –esan nuen poz-pozik– Nola iritsi zara Ozeanora?


–Buf! Oso istorio luzea da! Inportanteena da berriz elkartuta gaudela.

Blairi besarkada handi bat eman nion.

Blai eta biok Kantauri Itsasora heldu ginen eta hemen bizi gara pozik. Baina badakit hemen denbora gutxi egongo garela. Izan ere, gero eta gehiago nabaritzen dut eguzkiaren beroa eta ziur nago laster beste hodei batek hartuko nauela... Dena den, oraingoan ez naiz Blairen eskutik askatuko.”







Nile Barandika Monasterio  
Felix Serrano LHI

**B**azen behin Antton izeneko mutiko bat, 5 urtekoa. Gurasoekin eta bederatzi urte zituen arrebarekin bizi zen.

Berari gutxien gustatzen zitzaion gauza ilea garbitzea zen. Astean baten garbitu behar zuen ilea eta egun hori larunbata izaten zen. Anttonek larunbat guztietan galdetzen zuen:

–Gaur zer egun da?

Eta ama Tomasak beti erantzuten zion:

–Gaur zure egunik txarrena da, larunbata.

Orduan, Antton etxe guztitik hasten zen korrika eta ama Anttonen atzetik harrapatu nahian, segidan duxara sartzeko. Ordu erdi pasata Tomasak Antton dutxan edukitzen zuen prest burua garbitzeko. Kostatzen zitzaion Tomasari Anttoni burua garbitzea mutikoak egiten zituen garrasiekin, baina lortzen zuen.

Ane arreba eta bere aita komuneko atean egoten ziren Anttonen garrasiak entzuten eta ez zitzaien gustatzen amak Anttoni horrela sufriaraztea.

Gauean, afaldu eta gero, Antton eta Ane oheratu egiten ziren eta isil-isilik egun horretan gertatutakoa kontatzen egoten ziren beti.

Egun baten Anek hau esan zion Anttoni:

–Ez baduzu nahi amak ilea garbitzerik, hurrengo larunbatean nirekin etorri beharko zara ile-apaindegira ilea moztera.

–Utzidazu aste bat pentsatzeko –erantzun zuen mutikoak.

Aste bete pasa ondoren Ane Anttonen zain zegoen ile-apaindegira joateko. Ile-apaindegira heldu zirenean, Antton aulki batean eseri zen eta emakume batek esan zion:

–Nola nahi duzu moztea?

–Burusoil –esan zion arrebak emakumeari.

Mutikoak hori entzun zuenean, aulkitik altxatu eta ile-apaindegitik atera zen. Anek ez zuen beste irtenbiderik izan Anttonen bila ateratzea baino. Mutikoa eta neskatoa etxerako bidean elkartu zirenean, hau esan zion Anek Anttoni:

–Burusoil moztu beharko duzu ez baduzu nahi amak ilea garbitzerik, zikinke-  
ria, zorri, zahi eta edozein motatako txikle edo karameluekin zikintzen duzulako  
ilea. Gainera gaur larunbata da.



Etxera heldu zirenean amak Anttoni dutxara joateko esan zion ilea garbitzeko, noski. Eta mutikoak segidan, ezer esan gabe, bete zuen amaren esana, konturatu zelako ilea garbitzea baino gauza txarragoak daudela munduan, adibidez: burusoila izatea eta berak zorte handia zuela ile polit hori izateaz.





**C**  
**KATEGORIA**  
**(DBHko 1. eta 2. mailak)**







# ETA KITTO

*Jone Ruiz Azkarate  
Miguel de Unamuno BHI*

**Z**ortziak dira. Iratzargailua amatatu dut. Zer ondo nagoen hemen sartuta! Ez dut altxatu nahi. Betiko geratuko nintzateke hemen. Baina laster amaren ahotsa entzungo dut: “Pello, ordua da, gosaria prest dago!”

–“Itxaron pixka batean, ez nago ondo”.

Azkar, aitzakien zerrenda atera beharko dut. Zer erabili? Tripako mina joan zen asteen izan nuen; buruko mina, harenegun; gaur...

Badakit, belarriko mina.

Kaka zaharra! Altxatu behar izan naiz, amak ez du tutik sinestu eta. Hiru aldiz medikuarenera joan garela eta ondo nagoela esan du.

–Bai zera! Jakingo balu...

Beste irtenbiderik ez dago. Gosaldu, arropa jantzi, motxila hartu eta kalera.

Irten baino lehen, itsulapikotik hamar euro hartu ditut inor konturatu gabe. Agian beharko ditut, jipoi baten truke. Zoritxarrez diru gutxi geratzen zait. Zer gertatuko ote da amaitzen zaidanean?

Kalean nago. Hotz egiten du; hotzez hilda nago baina aldi berean izerdi-tan blai. Ibilbidean tripako mina hasten zait. Pauso geldoa daramat; kopeta, iluna.

Neure buruari galdetzen diot zergatik niri eta ez beste bati. Ezin dut erantzunik aurkitu. Besteek zergatik jarraitzen dute ixil-ixilik? Inor ez da jabetzen nire egoera larriaz? Nik jakin badakit batzuk nire arazoaz ohartu direla, baina ez dira ausartzen nigatik aurpegia ematera.

Espero dut aurreko egunean egindakoa ez errepikatzea, lotsa-lotsa eginda utzi ninduten besteen aurrean. Inork ez zidan lagundu. Nire larruan egon beharko lirarteke!

Eskolatik hurbil nago, bihotzaren taupadak arintzen zaizkit. Han daude batzuk, nire zain. Zurbil eta dardarka nago; haiek, ni ikusita, barrura sartu dira barrezka. Gelan egongo dira zelatan, baina gutxienez pixka bat beranduago ikusiko dugu elkar.

Institutuko atea zeharkatu dut, ez dago inor begi-bistan, gaitzerdi. Pasabidean geldirik geratu naiz momentu batean, orain ala inoiz ere ez. Nire gorputz osoaren kemena hartuta erabaki bat hartu dut: “Honaino iritsi gara, baina hemendik aurrera pausorik ez”.

Infernu honetatik irten behar naiz, buelta eman dut eta tutorearen gelara abiatu naiz. SALATU EGINGO DITUT ETA KITTO.



# AHULEZIA BITXIA

*Elai Andraka Gonzalez  
Ignacio Ellacuria BHI*

**Z**er arraio zen hori? Argia begiratu zuen berriz eta orduan ulertu zuen; argi hori parke bateko farolak ematen zuena zen. Burua ikutu zuen min handia zuelako; hori zela-eta nabaritu zuen bere ilea zikintzen zuen zipriztin nazkagarri hura: odola. Nekez altxatu eta ospitalerantz abiatu zen korrika bizian, ahuleziaren ondorioz behaztopatzen.

Korrika egiten zuen bitartean oso sentsazio arraroa nabaritzen zuen. Biluzik zegoela sentitzen zuen, baina bere arropa argi ikusten zuen, argi antzematen zuen gorputz gainean.

Nahiz eta ziztu bizian joan, nahiz eta burutik odoletan egon, nahiz eta errepide erditik igaro, ez zion inork begirada bakar bat ere botatzen. Gogoeta honi bueltaka zebilenean, min ziztada bat sentitu zuen bularrean. Ziztada hori bularretik zilborrera jaisten zen poliki-poliki, eta abiadura bizkortu zuen. Hil egingo zela iruditzen zitzaion.

Ospitalera heldu baino lehen beste hainbat ziztada berri sentitu zituen bere gorputza apurtzen errukirik gabe.

Azkenean, lortu zuen, han zegoen, bere momentuko mirari pertsonala: ospitaleko larrialdietako atea. Emakume bat zegoen momentu horretan sartzen eta bere ondotik pasatu zen ziztu bizian. Oinekin estropezu egin eta lurrera erori zen,

izugarrizko kolpea hartuz. Han gelditu zen, ahuleziaz zapalduta, inork laguntzen ez ziola.

Burua ezkerretarantz biratu zuen poliki-poliki, gela ikusi ahal izateko. Idazkari lodi eta “hortera” bat sartu zen. Jendeari galderak egiten zizkion eta zenbait medikurekin uzten zituen; neskato txiki batek tripako mina zuela esaten zion bere amari; itxura txarreko tipo batek odolez betetako zapi bat jartzen zuen sudur aurrean, sendagile batek galderak egiten zizkion bitartean; mota desberdinetako medikuek eta erizainek jendea laguntzen zuten; eta berak, burua odolez beteta zuen mutiko batek, lurrian itxaron behar zuen norbait errukitu eta handik altxatzeko.

PENAGARRIA.

Kontu handiz, eskuekin bultzatuz, hormaraino heldu eta zutitzen hasi zen.

Noraezean ibili zen ospitaleko gela eta pasabideetatik eta inork ez zion orain ere ezer esan. Existituko ez balitz bezala sentitzen zen.

Ez zekien nola heldu zen haraino baina, bat-batean, autopsien-kirofano aurrean zegoen, eta indar ikusezin batek hara barrura bultzatzen zuen. Atea trantze hipnotikoan zirudien erizain batek zabaldu zuen, eta han gelditu zen, sartzera bultzatu nahi balu bezala. Erizain hipnotizatua begiratu eta hotzikara bat sentitu zuen. Begiak oso zabalik zituen, baina hauek hitsak ziren, bizirik gabeko begiak. Ez zuen autopsia-gelan sartu nahi, baina mamu-erizain horrekin geratzeak izugarrizko beldurra pizten zion.

Atea zeharkatu zuen eta berau bere atzean itxi zen.

Ongi argizatutako gela batean zegoen. Horma guztietan metalezko armairuak eta atetxo txikiak zeuden; teknologia handiko ekipoa zegoen gelaren izkina batean; eta gela erdian metalezko hiru mahai zeuden. Haietako bi hutsik zeuden, baina hirugarrenean gorpu bat zegoen, eta mediku batek zerbait egiten zion labanaz. Gorpuaren aurpegia begiratu zuen eta... ez zen pentsamendua amaitzeko gai izan.

Han etzanda zegoen gorpua begiratzea ispilu batean begiratzearen antzekoa zen. Baina desberdintasun handi bat zegoen: gorpua autopsia-gela baten mahaian zegoen; ez zuen ilerik, burmuinean sartuta zegoen arma hobeto ikusteko burua soildu baitzioten; bisturiaz egindako zauri handi batzuek bere bularra eta tripa zeharkatzen zuten -seguraski, horiek ziren bidetik sentitu zituen min-zitadak-, eta izugarrizko zurbiltasuna zuen. Medikuek bularreko zauriak josten zizkion gorpuari, eta berak bere gorputzean sentitzen zuen.

Egiak gogor kolpatu zion bihotza.

Ezinezkoa zen. Ezinezkoa zen bera... *horrela* egotea. Ez zuen sinetsi nahi, baina seinale gehiegi zeuden. Bestela, nola azaldu zergatik ez zion inork begiratzen? Zergatik tratatzen zuten existituko ez balitz bezala? Zergatik zegoen hipnotizatuta ateko erizaina? Zergatik indar misterioitsu batek hara bultzatzen zuen? Zergatik zeukan bere gorpua haren aurrean?

Pentsamendu berri bat sortu zitzaion supituki.

Parkeko farola azpian zegoen, ezkutuan goizeko zigarroa erretzen, mutiko bat korrika parkean sartu zenean. Denda bat lapurtu berri zuen eta polizia haren atzetik zihoan. Farolara heldu zenean indarrez bultzatu zuen erditik kentzeko, eta, nahi gabe, eskuan zeraman arma mutikoaren burezurrean sartu zen.

Hori izan zen bere zentzurik gabeko heriotza.

Idea hau bere buruan zitzada mingarri bat bezala sartu zen:

*HILDA ZEGOEN!!*

Bere ikusmena ilundu egin zen eta ez zen ezer ikusteko gai izan. Iluntasuna alde guztietatik zegoen, eta honek irentsiko zuela pentsatzen zuenean argi puntu txiki bat agertu zen bere aurrean: bere azken pentsamendua. Ulertu zuen pertsona batek hil ondoren bizirik zegoela pentsatzen zuela, baina egiaz konturatzean honek iluntasunean irensten zuela.

Betirako iluntasunean.

Hil ondoren ez zegoen ez Argirik ez Zerurik... Iluntasun nazkagarri hori soilik.

Betirako iluntasuna...



## Nire ipuina

Jean Bustinza García-Escudero  
Miguel de Unamuno BHI

**B**azen behin... ez, ez, hobeto: Egun batean... kaka zaharra!, ez dakit nola hasi istorio madarikatu hau, ezta nola jarraitu ere!

Aitari galdetuko diot ea zer egin ahal dudan.

–Aita, zer idatzi ahal dut Mikoletarako?

–Baaa... uste dut... –minutu bat pasa ondoren.

–Zer?

–Ez dakit, zuri gustatzen zaizkizun gauzak... galdetu amari.

Orduan sukaldera joan naiz amari zer egin ahal dudan galdetzera.

–Ama

Amak, sukaldean lanpetuta, ez dit entzun.

–Ama!

–Zer, zer nahi duzu? –ohiukatuz.

Hobeto ez molestatzea pentsatu dut.

–Ezer ez, afaria noiz?

–Ez dakit, hamar minutu barru, edo...

–Ongi, agur.

Orain aukera bakarra dut, nire arreba txikiari galdetzea. Egongelara joan naiz, eta nire arreba, beti bezala, ordenagailuan dago jolasten.



–Sofi.

–Zer?

–Mikoletarako ipuin bat egin behar dut, ideiarik eman ahal didazu?

–Ez.

–Sofi!

–Ez dakit zer egin ahal duzun.

Momentu horretan gure amak afaria prestatuta dagoela esan digu.

Afaria jan ondoren nire logelara joan naiz Mikoleta ipuina bukatzera (edo has-tera, hobeto esanda).

Igandea da, gorrotatzen ditut igandeak, ia astelehenak baino gehiago; ostira-letan eta larunbatetan ez dut inoiz etxerako lanik egiten, pixka bat alferra naizela-ko. Horregatik, musika eta gizarte azterketarako ikasi behar dut ipuina amaitzean.

Orain, historia txar honekin zerikusirik ez duen marrazkia jarriko dut, orria betetzeko.



Sentitzen dut Edward Munch-en margolana ez jartzea, baina etxean ez dugu inpresorarik ez eskanerrik eta ez dakit zer aparailu argazkiak inprimatzeko. Zer uste duzue, ondo pasatzen dudala lan artistikoak apur-tzen?

Lehen esan dut ez duela zerikusirik margolan horrek istorio honekin, baina okertu naiz, ez naiz per-fektua (ia-ia), lan horretan ni margotuta nago, ni estre-satuta oso berandu delako eta ez ditudalako etxerako lan guztiak amaitu.

Istoriara bueltatuta, bukaera esango dizuet.

Ez dut lana amaitu; euskarako irakasleak negatibo bat jarri dit etxerako lanak ez egiteagatik; gizarte eta musika azterketak penkatu ditut ipuin honekin denbora galtzeagatik; eta Mikoleta saria ez dut irabazi.





# Istorio interesgarriena Zuhatzan



*Bego Ispizua Moreno  
Artxandape Ikastola HLBHIP*



**T**xikitatik gustatu izan zait idazlea izatea. Nire buruan dudan oroitzapenik politena orain dela urte asko nire egunerokoaren aurrean jartzea eta idazten hastearena da.



Matxalen dut izena. Hogeita bi urte ditut. Esan dizuedan moduan asko gustatzen zait idaztea. Horrek gogoratzen dit oraindik gordetzen dudala nire lehenengo egunerokoa. Batzuetan ipuinen bat idazten nuen. Baina inoiz ez nuen pentsatu idatzitako istoriorik interesgarriena niri gertatuko zitzaidanik. Zuhatzan nengoen ikastolako kanpamentu batzuetan 1998. urtean. Hamaika urte nituen.



Ni tamaina txikiko neska ile belzduna nintzen eta ez nekien igeri egiten, baina kanpoan ez gelditzearren uretara sartu nintzen txalekoarekin.

Igerian nengoela txalekoa handitzen zitzaidala konturatu nintzen, baina ez nion garrantzirik eman. Orduan igerian jarraitu nuen. Txalekoa gero eta gehiago handitzen zitzaidan. Orduan izutzen hasi nintzen. Laguntza eskatu nuen baina ez zidaten entzun. Bertako begiraleek ikusi ninduten baina ez zidaten jaramonik egin. Txantxetan nengoela uste baitzuten. Ni oso estua nintzen jarraian joan nintzen hondorantz. Ez nekien zehazki zer gertatu zen zorabiatzen hasia bainintzen, baina beherantz nihoala pertsona berezi batzuk ikusi nituen...

Esnatzean ez nuen ezer ulertzen, "eta... hilda banago?" pentsatu nuen. Momentu horretan konturatu nintzen animaliez inguratuta nengoela. Hitz egiten zuten animaliez inguratuta. Haiek azaldu zidaten ez nengoela hilda, hondoan baizik. Eta haiek ez zirela animaliak ere azaldu zidaten. Beraiek izan ziren ni goitik jausten ikusi ninduten bakarrak. Nik galdetu nien ia nire gurasoak ikusi zituzten, baina beraiek ezetz eta ziur aski ez zirela inoiz etorriko erantzun zidaten. Norbait han hondoratzen bazen eta lurrazalean inoren laguntzarik ez bazuen, betirako geratzen zen. Zuhatzako lakuaren hondoa zen eta antzinako kondairak esaten zuen moduan leku hura Xamxeim zen, 1564.urtean hondoratutako herria.

Inoiz ez nintzen horrela sentitu, gurasorik gabe, lagunik gabe eta niri laguntzeko pertsonarik gabe. Baina oraindik nire gurasoak itzuliko ziren esperantza nuen. Lehenengo eguna oso astiro pasatu zen. Ez nekien zer egin, lagunik ez, jatekorik ez, eta kaleko izkinean nengoen lurrean aurkitu nuen adarrez egindako txirula antzeko batekin eta jotzean koloreetako burbuilak ateratzen ziren. Horrela pasatu nuen bigarren eguna ere. Hirugarren eguna askoz hobeto joan zen lagun bat aurkitu nuelako. Blaridna zuen izena. Esan zidanean nire adinekoa zela pentsatu nuen zorte handia nuela leku arraro horretan nire adineko pertsona bat aurkitzeagatik, baina jarraian konturatu nintzen nire eta beraren zenbatzeko sistema ez zela berdina. Han hamaika urte 111 urte ziren, baina momentu horretan ez zidan axola. Azkenean lagun bat aurkitu nuen: Blaridna. Xamxeimko ohiturak erakutsi zizkidan. Kontatu zidan bazirela 3.000 urte handik izakirik pasatzen ez zela. Bertatik pasatu zen azkenengo gizakia Iratxe zuen izena, baina 34 urte zituen.

Hamabosgarren eguna zen, ostirala. Egunak oso bizkor pasatzen ziren Blaridnarekin. Egun honetan kontatu zidan lau urtero behin lehiaketa bat ospatzen zela. Lehiaketa horretan lurrazaleko gizakioi eroritako objekturik zentzugabekoa aurkitu behar zen. Niri lehiaketa hori zentzurik ez zuela iruditu zitzaidan. Momentu horretan nire gurasoaz gogoratu nintzen. Uste nuen bertan utziko nindutela denbora luze batean, oso luze batean.

Lehiaketaren eguna zen; nork esango zuen nik lehiaketa horretan parte hartuko nuela!

Primeran pasatu nuen egun horretan. Irabazlea Blaridnaren lagun bat izan zen. Mugikor bat aurkitu zuen. Nik azaldu nien hori beste munduan oso gauza

garrantzitsua zela. Beste munduan jendeak askoz gutxiago ikusten zuela elkar eta askotan ez zela hain erraza pertsona bat bisitatzea.

Urte bat pasatu zen eta nire adineko umeak ikastolara joaten hasi behar ziren. Baina ez edozein ikastolatara. Egun horretan kontatu zidan Blaridna bertakoak magoak zirela eta 11 urterekin ikastolara joan behar zutela, Muglin izeneko ikastetxera. Blariadna bertako 4 urteak egin zituen. Bera izan zen esan zidana ikastolara joateko. Nik esan nion ez nintzela mago edo sorgina baina horrek berari berdion. Berak ni ikasten eta ondo pasatzen ikusi nahi ninduen. Bere barita magikoa oparitu zidan eta nik aprobetxatu egin behar nuela esan zidan, bere aitarena baitzen.

Ezin dut sinetsi. Nork esango zidan niri magoa naizela? Blaridnak esan zidan denok, edo bihotz oneko pertsona guztiok, magia pixka bat dugula. Berak bazekien ni magoa nintzela eta nire familia ere bai. Nik galdetu nion ia nire gurasoak ezagutzen ote zituen eta berak baietz esan zidan; nire ama izan zela herri hori ikutu zuen azkenengo gizakia eta bakarra esan zidan. Ni bertatik pasatzen naizen bigarren gizakia nintzen.

Egia da. Nire ama Iratxe da eta orain dela urte asko hona etorri zen Zuhatzara kanpamentu batzuetara. Nola ez zait lehenago bururatu?

Berak ez zidan inoiz ezer esan Xamxeimi buruz.

Gogoratzen dut, atzo izan balitz moduan, ni magoa nintzela esan zidanean. Nire ama ikustean besarkada handi bat emango nion eta gero belarrira esango nion nire sekretua. Uuuufff! Baina ziur aski ez ninduten aurkituko. “Bi urte daramatzat ur azpian, eta oraindik ez dut ulertzen nola jarraitzen dudana bizirik, ito beharrean” - esan nuen.

Nire momentua heldua zela uste nuen. Ez nekien magia askorik baina saiatu beharra nuen. Ezin nintzen betirako han gelditu; nire familiarekin bueltatu behar nuen. Blaridnak esan zidan alferrekoa zela, inolako magiak ezin baitzuen hegan egitea lortu. Ni, jaramonik egin gabe, saiatu eta saiatu egin nintzen, baina Blaridnak esan zuen moduan, ez nuen ezer lortu.

Hirugarren urtea astiro, oso astiro, pasatu zen. Magiako eskolan jarraitu nuen, ezer berririk gabe. Jadanik magiako bigarren kurtsoan nengoen, bost urtekoen. Blaridna gaixotzen hasi zen, 555 urte baitzituen. Minbizia izeneko gaixotasuna zuen. Bertan ez zeukaten ez gaixotasunak kentzeko ezer, ez gaixoak zaintzeko pertsonarik. Nik lagunduko niola esan nion. Abuztuaren 7an hil egin zen. Ezin nuen sinetsi, nire lagunik onena, nire ama Xamxeimen hil egin zen.

Beste bi urte pasatu ziren Xamxeimen. Nik magiako kurtsoak bukatu nituen. Jendeak zoriondu egiten ninduen lehenengo gizakia nintzelako magiako kurtsoak amaitzen zituen. Nire amak ere kurtso hauek hasi zituen baina ez zituen bukatu. Gau hartan denek batera festa bat antolatu zieten magiako 4 kurtsoak bukatu zituztenei.

Halako batean norbait edo zerbait gainazaletik jaisten ikusi zuten. Inork ez zekien zer edo nor zen. Inork ez, nik izan ezik. Momentuan ezagutu nuen ni txikia nintzenez Zuhatzan zaintzen ninduen begiralea. Berak agurtu egin ninduen

eta momentu horretan sentitu nuen itotzen hasia nintzela eta Xamxeim hiria desagiten, edo ikustezin bihurtu zela. Momentu horretan zorabiatu egin nintzen eta konortea galdu nuen guztiz.

Jaikitzean berriro ere buruez inguratuta nengoen, baina ez edozein buruz baizik eta nik 11 urte nituenean neukan gelakoenekin. Oraindik Zuhatzan nengoen, baina ez Xamxeimen, baizik eta lurrazalean.

Ez nuen ezer ulertzen. Ni jadanik oso hasita nengoen eta nire gelako lagunak ez ziren aldatu. Etaaa... uretan nire aurpegiaren isla ikusi nuen eta nik txikitant nuen itxura bera ikusi nuen. Nola izan daiteke... Nire gelakoei dena azaldu nien, baina ez zidaten sinetsi; gutxienez nire begiraleak. Bera izan zen nire bila etorri zena eta bera uretan zegoenean ez zuen ezer ikusi.

Hurrengo urtean azkenengo urtea tokatzen zitzaidan Zuhatzan baina, ezin nuenez sinetsi, begiralea agertzean, Xamxeim herria ikustezin bihurtu zela, urte horretan nahita hondoratu nintzen zeren urtean zehar ikasi nuen etaaaa...

Bai bertan zegoen Xamxeim herria. Ez zen desagertu. Ni azalpen baten bila nenbilen. Nire begiralea agertzean zergatik dena ikusezin bihurtzen zen?

Xamxeimko herritarrek dena azaldu zidaten. Magia ez duen norbait hara joatean, herria ikusezin bihurtzen zen.

Orain, lehen esan dudan moduan, 22 urte ditut eta ez dut halako istorioetan sinesten, baina niri gertatutakoa denez sinestu beharra dut. Eta ilusioak edo eta fantasiaren sinesmenez ez ahazteko Blaridnak oparitu zidan makiltxo magikoa gordetzen dut beti.





Maitane Sobrino Alonso  
Artxandape Ikastola HLBHIP

**-G** abon! Haur, gazte eta heldu guztiei! Ongi etorria ematen dizuet “Diruaren Labirintoa” saiora. Gaur dibertsio, emozio eta zalantzen nahastea izango dugu hemen. Beraz, segundurik galdu gabe has gaitezen!

Honela hasten zen gauero telesaio ezagun hau eta, gezurra badirudi ere, mila-ka pertsona biltzen zituen gauero telebista aurrean.

Aurkezlea gizon gazte, gihartsu eta sendoa zen, begi berdeak zituen eta neska guztiek gogoko zuten. Ez zen harritzekoa, ordea, halako irribarre eta begiradaz. Aldizkarietan agertzen zen eta etxe dotore batean bizi zen bere emaztearekin. Urduria zen eta hitz egiterakoan asko oihukatzen zuen; hainbeste oihukatzen zuen ze batzuetan jendeak telebistaren bolumena jaitsi behar zuen. Hala ere, gizon mai-tagarria zen, baina azkenaldian diruaren menpe zegoen. Dirua behar zuen bizitzeko, berarentzat dirua itsumena edo obsesioa zen. Eta horregatik aurkezten zuen telebista saio hau.

Saio honetan jendea lehiazera joaten zen, bertan labirinto baten barruan sartzen ziren. Labirintoan luxua, dotorezia eta tentaldia zeuden batez ere. Partaideak etxe dotore batean bizi ziren eta bakoitzari kreditu txartel bat ematen zioten 10.000 euroekin. Saio osoan zehar hainbat froga egiten zituzten. Froga bakoitzak



bi gauzetara eramaten zituzten: 1. dirua irabaztera eta 2. dirua galtzera. Diru guztia galduz gero edo frogak gainditu ezean saioa utzi behar zuten. Saioa amaitzean kreditu txartelean diru gehien zuenak irabazten zuen eta lortua zuen dirua opari moduan eraman zezakeen etxera.

Jendea bi taldetan banatzen zen: saioaren ikusleek asko gozatzen zuten saioa ikusten eta saioaren aurkakoek saioa telebistan ematen duten saio txar bat besterik ez zela pentsatzen zuten. Hainbat iritzi zeuden “Diruaren Labirintoari” buruz, kontaezinak zirenak.

–Aurtengo programarako partaideak aukeratzeko dei egizue: 944 43 25 66ra edo SMS-ak bidali DIRUA hitzarekin 2566ra. Bihar ezagutuko ditugu irabazleen izenak. Beraz, bihar arte eta gogoratu deitzeaz eta SMSak bidaltzeaz. Ondo lo egin! Bihar arte! –aurkezleak.

Izadi, 23 urteko gaztea, gurasoekin zegoen etxean “Diruaren Labirintoa” ikusten. Bere mutil lagunarekin bizitzera joan nahi zuen eta ez zuen behar adina diru. Beraz, bere mugikorra atera zuen eta inori ezer esan gabe SMS bat bidali zuen saioan parte hartzeko. Lo egitera joan zen, oso nekatuta zegoelako.

46 urteko Josuk, ezkondua eta bi seme alabekin bizi zenak, programa ikusi zuen eta ezkutuan etxeko telefonoarekin dei egin zuen “Diruaren Labirintoan” parte hartzeko. Ondoren oheratu eta laster zurrungaka hasi zen.

Loreak 32 urte zituen eta baserri dotore batean bizi zen bere mutil lagunarekin, bere aitonaren oinordetzan jasotakoa zen baserria. Mutil lagunak esan zion SMS bat bidaltzeko eta Loreak halaxe egin zuen.

Azkenengoak, Ekaitzek, besteek ez bezala, diru gutxi zuen eta pisu txiki batean bizi zen bera bakarrik. Oso atsegina, jatorra eta alaia zen. Gau hartan herriko tabernan zegoen bere lagunekin eta, tabernako telebistan programa ikusi ondoren, SMS bat bidali zuen; bera eta bere lagunak irrikitan zeuden hurrengo egunean gertatuko zenaren zain.

Hurrengo egunean, segunduak amaigabeak ziren Izadi, Josu, Lorea eta Ekaitzentzat. Baina gauero legez, jendea telebista aurrean zegoen, “Diruaren Labirintoa” noiz hasiko zain.

–Gabon! Haur, gazte eta heldu guztiei! Ongi etorria ematen dizuet “Diruaren Labirintoa” saiora. Gaur dibertsio, emozio eta zalantzen nahastea izango dugu hemen. Beraz, segundurik galdu gabe has gaitezen! Espero dut parte hartzeko askok deitu izana! Hemen ditugu gaurko partaideak...:

1. Izadi Etxebarria.
2. Josu Iriberrri.
3. Lorea Uribeondo.
4. Ekaitz Agirre.

Bai, badakit kasualitate handia dela pentsatuko duzuela, lehen aipatutakoak izatea saioan parte hartzeko aukeratuak. Baina istorio guztietan dago errealitatean gertatzeko zaila den zerbait eta hori da beti istorioei azpijoko edo intriga pixka bat ematen diena. Horregatik ezer arraroa gertatu ez balitz bezala jarraituko dut.

–Suposatzen dut irabazleok zer egin ez dakizuela zaudetela. Lasai! Oraintxe bertan zuen etxeko telefono eta mugikorretara deitzen ari gara, eta bihar bertan

sartu egingo zarete “Diruaren Labirintora”! Bihar arte, ondo lo egin guztiok!– eta aurkezleak irribarre distiratsua erakutsi zion kamerari.

Hurrengo arratsaldean Izadi, Josu, Lorea eta Ekaitz haien etxe dotoreetan zeuden. Haien artean begirada zorrotzak eta hitz hotzak besterik ez ziren zuzentzen. Afaldu eta gero saioa hasiko zen.

–Gabon! Haur, gazte eta heldu guztiei! Ongi etorria ematen dizuet “Diruaren Labirintoa” saiora. Gaur partaideak etxean kokatu dira. Hiru frogak daude guztira eta orain lehenengoarekin hasiko gara. Aurrera!

Partaideak labirintoan zeuden eta hasieraren ondoren lehenengo frogarekin aurkitu ziren. Izadik honela irakurri zuen:

–Froga honetan bi aukera daude: 1. zuen kreditu txarteleko 5.000 euro kenduko dizuegu edo 2. labirintoa zeharkatu amaieraraino heldu arte, eta gero berriro hona itzuli beharko zarete 3 ordutan. Zer diozue?

–Ni hemen geldituko naiz eta dirua emango dut –Izadik.

–Ni ere bai –Ekaitzek.

–Ni joan egingo naiz labirintora –Loreak.

–Ni ere bai –Josuk.

Beraz, Josu eta Lorea “Diruaren Labirintoan” barrena joan ziren eta Izadi eta Ekaitz haien zain geratu ziren. Ordua heltzeko minutu gutxi falta zirenean Lorea agertu egin zen izerditan blai, heldu zela sinestu ezinik. Josu ez zen heldu eta saioa utzi behar izan zuen.

Orduan, bigarren frogari hasiera eman zioten. Buruketa bat zen 30 segundutan egin behar zena:

–Nereak 1.235.897 euro zituen, 1.000 euro eman zizkion lagun bati, 700.000 eurotako etxea erosi zuen, 56 eurotako kamiseta eta azkenik 890 eurotako telebista bat. Zenbat diru dauka orain?

Buruketa zaila zen, hain denbora gutxitan egiteko; hala ere, Ekaitzek eta Izadik frogak gainditu zuten. Loreak, ordea, ez zuen denborarik izan. Beraz, jokuz kanpo geratu zen.

Azkenengo frogak honako hau zen:

–Partaide bakoitzak 20.000 euro eraman behar ditu euro bateko txanpionetan labirintoaren amaieraraino. Froga honetarako 5 ordu dituzue. Beraz, hasi zaitzete!

Izadik, denborarik galdu gabe, poltsa bat hartu zuen eta kopuru txikitik joan-etorriak egiten hasi zen. Ekaitz pentsatzen zebilen. Ez zitzaion ezer bururatzen, azkenean gurdi bat hartu zuen eta lau joan-etorritan diru guztia garraiatu zuen. Irabazlea izan zen eta diru asko irabazi zuen.

Eta orain bai, irakurle agurgarriok, badakizue zer den “Diruaren Labirintoaren” amaiera honetako gauzarik onena? Handik aurrera ez zutela saioa gehiago eman eta ikusteko benetan merezi duen saio bat ematen hasi zirela. Orduan, badakizue ez ditugula telebistako saio txar hauek bultzatu behar, bestela telebista bezalako asmakizun zoragarria zikinkeriaz, zaborrez eta iragarkiez beteko dugu. Espero dut zuek zerbait ikasi izana eta guztiok telebistarekiko jarrera aldatzea.

Egia bada sinets, egia ez bada amets.



# Gizakion zoriontasuna

*Ane Eunat Iturrizar Manero  
Artxandape Ikastola HLBHIP*

**A**ntzina, deabruak infernuan bizi ziren eta han biltzen ziren gizakiei buruz hitz egiteko.

Haietako batzar batean, deabru batek esan zuen:

–Joan gaitezen gizakiengana eta ken diezaiegun haien zoriontasuna!

–Ongi da! Baina... non gordeko dugu? –erantzun zion beste deabru batek.

–Ba... munduan dagoen mendirik altuenean gordeko dugu, eta horrela ezin izango dute aurkitu- proposatu zuen beste batek.

–Bai, ideia ona izango litzateke, gertatzen dena da gizakiek indar handia dute- la eta azkar igo daitezkeela mendi tontorreraino –kendu zien burutik ideia beste batek.

Horrela, ideia asko proposatu zituzten:

Zoriontasuna itsasoaren azpian gordetzea pentsatu zuten, baina deuseztatu egin zuten, gizakiak oso kuxkuxeroak garelako eta ziur aski aurkituko genukeelako edo tresnaren bat asmatuko genukeelako. Urruneko beste planeta batean gorde- tzea ere pentsatu zuten, baina ideia horri ere ezetz esan zioten, gizakiok oso jakin- tsuak baikara eta laster aurkituko genukeen guk eraikitako espazio-ontzi batzuekin.

Deabruak hitz eta pitz jarraitu zuten goizeko hirurak arte. Bat-batean, “azke- neko deabrua” zeritzona altxatu egin zen eta hauxe esan zuen:

–Gizakiak oso indartsuak dira, kuxkuxeroak ere badira, baita inor baino jakintsuagoak ere. Hala ere, ezagutzen dut leku bat, non ez duten inoiz zoriontasuna aurkituko. Beraien barruan. Hain lanpetuta ibiliko dira zoriontasuna kanpoan bilatzen, ez direla konturatuko haien barruan edukiko dutela.

Deabruak arrazoia zuten. Inoiz eduki ezingo dugun etxea, dirua, janaria, arropa... nahi dugu eta, gure ustez, horrek sortzen du zoriontasuna; baina benetan zoriontasuna sortzen duena ez dago kanpoan, gure barnean baizik eta gure inguruan ditugun pertsonak eta gure bizitzan zehar bizi ditugun momentuek lortzen dute gure zoriontasuna kanpora ateratzea.

Seguruenik, horrela jarraituko dugu bizitza osoan zehar. Hala ere, itxaropena daukat denborarekin batera bakoitzak bere barruko zoriontasuna aurkituko duela. Azkenean, deabruak esan zuen moduan, munduko izakirik jakintsuenak gara gu, gizakiok.



**D**  
**KATEGORIA**  
(DBHko 3. eta 4. mailak)





# Hazi nahi ez zuen mutila

Gorka Lopez Arantzamendi  
Gabriel Aresti BHI

**B**izi osoan printze mimatua bezala bizi izan naiz, nire kezkak benetakoak ez zirelarik, beti norbaiten besoen babespean ezkutatuta; txikitan, amaren bularpean eta, nagusitan, printze bat ikusten ez duten legearen begi itsuenean; egiten nuena eginda ere, beti nengoen babestuta, ia hilezina sentitu naiz horregatik urte askotan, gehiegitan agian.

Eta orain dena dago kolokan; dena dago bukatzeaz. Gogoratzen dut nerabetasunean gehiegizko babes hori gorroto nuela, babesak batzuetan bizirik hilda utzi ahal zaituen nortasun giltzaperatu batean sar zaitzake eta: auzotik urrutira joan gabe, nire behar arruntak betetzen, logelako leihotik ikusi ahal dudan iturri handi horretan ezin bainatuta. Iturri hori izan da urte askotan nahi izan dudana eta eduki ez dudana jostailu bakarretakoa.

Baina orain beranduegi da, bihar dena amaituko da eta. Atzean utziko ditudan gauzek atsekabetzen nauten arren, milaka gauza berri, zirrargarri eta kilikagarri irabazteko zorian ere banago: Ez diot inoiz gehiago, inori inola ere ez, nire burua edo pertsona kontrolatzeko aukerarik emango. Aske izango naiz nahi dudana tokira joateko. Eta hau pentsatzearekin batera, berriro begiratu diot iturriari.

Erlojuak gaueko hamar eta erdiak markatzen ditu, eta asteazkena denez ez da, beraz, inor egongo auzo serio eta gris horren atzeko plazan, zain daukadan iturria izan ezik.

Haizeak gogor jotzen du, eta gelatik antzeman ez dudanez, nire belarriak setoen hostoen astinduaren ondorioz sortutako soinu ziprintin ezegonkorrek betetzak harritu egin nau. Zeruan, ilargiaren argiak, marmolezko iturriari eta bere kristal antzeko urari kolore hunkigarria ematen die. Jokaera hau ume mimatu eta txarto hezi batena dela usteko duzue, baina momentu honetan horrek eta laugarren pisuko leihotik nire izena tonu eskandalizatu batean pentsatzen dagoen atsoak bost axola didate. Astiro ibili naiz setoen soinua oin azpian ditudan harritxoek karraskarekin nahastuz. Ondoren besoa luzatu dut obalo formadun iturri horren marmola ukitzeko.

Hotza, bustia, gogorra eta leuna. Barruan daramadan heldutasunak, etxera itzultzeko esaten dit, atea giltzez ixteko, baso bete ur edateko, oheratzeko eta lokartzeko. Baina isilarazi egin dut, agian ofizialki gaztetasunaren irteerako ateetatik igarotzeko zorian, baina oraindik pasatu gabe jarraitzen dudalako izango da. Hala bada, zapata, arropa eta guzti uretara bideratu naiz. Nire gorputza gorantz bustitzen doa ni makurtuz batera.

Etxean geratu naiz. Ilargi handi eta zurbila ikus dezaket.

Bihar 18 urte beteko ditut, printze aro motz honen amaiera, baina datorkidana datorrela aurre egingo diot, goiz batean pertsiana zabaltzean, gela betetzen dizuten eguzki izpiei begi zabal-zabalekin aurre egiten zaien bezala.

# Askatasunaren bila

*Eneritz García Montero  
San Inazio BHI*

**E**guna hasi bezain laster, nire izenaz ahaztu behar, nire aurpegia eta gorputza estali behar, ni naizena ezkutatu behar. Ez dago ezer esaterik, ez, ez dago ezer aldatzerik, egitekoa bete baino ez. Beti izan naiz pertsona lasaia, baina honek nire mugak apurtzen ditu, nire askatasun eskubide guztiak kentzen dizkit. Atzo jo egin ninduen. Herenegun, nire izenaz ez zen ezta oroitzen ere, eta gure alaba kanpotarra zela pentsatzen zuen. Eta egunero emakume berri batek nire oheko lekua betetzen du. Eta nik hori guztia eta gehiago jasan behar, Alak diolako, koranak diolako, gure arbasoek horrela egin zutelako.

Baina hori guztia oso arrunta da gu bizi garen gizartean, eta ez du kexarik onartzen. Ez du ezetzik onartzen. Bat ere ez. Ez senarrak, ez gobernuak. Denak gure kontra ari direla dirudi. Baina ez da horrela, ez, beti izan da horrela: haien garaian ere jasan zuten, eta orain guk ere jasan behar.

Oroitzapen alai oso gutxi ditut eta denak argazkiak bezala gogoratzen ditut; arazo bakarra da guztiak berri txar batekin zikinduta egon ohi direla beti: Aitak ama besarkatu zuen eguna, geroago berriz ezkonduko zela esanez. Danba. Emakume egin nintzen eguna, amak lagundu eta aholkatu ninduen. Aitari kontatu bezain laster, ohea zikintzeagatik jaso nuen jipoia. Plausta. Amak nire ahizpatxoa eduki zuenean, pertsonatxo txiki eta polit hori, nire aitak ez zuen alaba onartu nahi. Dunba. Ezkonduko nintzela esan zidatenean, baina ez nik maite nuen gizonarekin, baizik eta nik baino 20 gehiago zituen batekin. Pum. Nire alabatxoaren aurpegi




miragarria ikusi nuen lehen aldian, Jâmal izenekoa, nire senarrak ez zuen ikusi nahi izan. Pam. Nire bigarren semea eduki nuen egunean, Hashim deitu nuena, senarrak gure alaba iraindu zuen esanez bere neba bera baino hobea zela, berak ez zuelako inolako baliorik. Bumba.

Eta holakoak dira nire altxorrik preziatuenak. Izan ere, 22 urterekin eta emakumea izanda Arabia Sauditan ez dut egiteko askorik. Baina erabaki bat hartu dut: hau ez da nire seme-alabentzat nahi dudana. Ez dut nire alaba kaletik aurpegirik eta bizi barik ikusi nahi. Ez dut nire semea bere alabak mespretxatzen ikusi nahi. Ez ditut semeak hezi geroago munstroak bezala izan daitezen. Inola ere ez. Horregatik alde egitea erabaki dut. Egunen batean, bai, jipoiek eta irainek ni amaitu baino lehen. Izan ere, horretarako jarri zidan nire amak Fath izena, garaipena deritzona. Eta ohore egingo diot. Oso zaila da hau egitea, ezinezkoa dela ez esatearren. Lagun baten laguntzarekin senarrak ez gaitu harrapatuko eta, gainera, garraioa lortuko digu. Senarrari eskutitz bat utziko diot, eta petrolio daraman itsasontzi batean joango gara Espainiara. Eta han diru pixka bat irabazi bezain laster, bizi berria hasiko dugu: merezi dugun bizia.

Dena prestatuta genuen: maletak, eskutitza, zenbait egunetarako janaria, senarrari kontatuko nion gezurra etxetik irteteko eta lagunari ordainduko nion dirua, ezer ez esateko, noski. Seme-alabak jantzita, prest eta ados zeuden. Baina orain zailena zetorren: kalera ateratzea, inork ikusi barik, ondo estalita, eta Huseim lagunarengana heldu eta itsasontzian azkar sartzea, etorkizunerantz abiatzeko. Gauz irtetea erabaki genuen, Hashim eta Jâmal gaixotu zirela esanez. Kanpoan zegoen argiak eta isiltasunak beldurtzen gintuen, baina ordurako, nik uste, gauza guztiek beldurtzen gintuztela. Korrika, kaleetan barrena joan ginen, familia bat etxetik ihesi zihoala inork ikusi ez zezan. Kale oso ilunak eta arriskutsuak zeharkatu genituen, eta azkenik portura heldu ginen, eta Huseimen laguntzarekin (eta dirua ikusi zuen bezain laster) itsasontzira sartu ginen. Gaua oso hotza eta tristea izan zen, eta beldur handia izan genuen petrolio deposituetatik irteteko zorian zegoela iruditzen zuelako. Baina azkenik heldu zen eguna, eta zaratarik egin gabe han gelditu ginen, dena prestatzen zuten bitartean, itsasontzia martxan jartzen zuten bitartean. Lau eguneko bidaia luze eta gogorra izan zen, eta beroak eta petrolio usainak oso nekatuta utzi gintuen, baina hango portura heldu ginen azkenean. Bilbo zeritzon leku hori, antza, eta ekonomia aldetik garatuta zegoen, baina irten bezain laster arazo batekin topatu ginen: krisialdian murgilduta zegoen herrialde osoa. Nahiz eta zaila izan, han geure herrialdeko zenbait pertsona aurkitu genuen, eta lan bat aurkitzen lagundu zidaten. Bitartean Seme-alabak lagun horiekin bizi-tzera bidali nituen. Hilabete batzuk pasatu dira, eta paperak eta etxebizitza aurkitu dut. Oso zaila izan da, batez ere, Jâmal eta Hashimentzat eskolara joatea. Hizkuntza ondo ulertu eta hitz egiten dugu jada, baina hemen dagoen arrazakeriak gauza asko egiteko oztopoak jartzen dizkigu. Hala ere, hemen dugun bizitza lehen-goia baino gustukoagoa dugu duda barik, nahiz eta oraindik aldaketa batzuk behar dituen. Izan ere orain zoriontsuak gara. Osasuntsu gaude, eta nik, azkenik, idazten eta irakurtzen ikasi dut. Nire seme-alabek lagun piloa dute, eta ez dute gure herrialdeko ohiturarik jarraitu behar. Nahi dutena erabaki dezakete.

Eta beste gauza bat ere badago: Argia dugu geure bihotzetan. Askatasuna. Eta oztopo guztiez aparte, oraingo bizimodua maite dugu. Izugarri.



## Oroitzapen beltzak

Laura Gallo Lavilla  
San Inazio BHI

**E**gun hori ezin hobeto gogoratzen dut. Oraindik malkoak ateratzen zaizkit begietatik gertatutakoari buruz pentsatzean. Izugarrizko airea egiten zuen; akademiatik atera eta aire bolada batek lurrera bota ninduen. Gero zirimiria ari zuen. Akademiatik etxera heltzeko hamar minutu behar nituen oinez. Liburuak eskuetan nituela, etxerako bidean hasi nintzen ibiltzen. Gaua gainean neukan, negua baitzen. Zortzi eta erdiak ziren. Izugarrizko hotza egiten zuen. Alde batera begiratu nuen eta itzal bat ikusi nuen. Segidan atzera begiratu nuen, baina ez zegoen inor. Orduan pentsatu nuen: “Nuria, oso egun gogorra izan duzu eta berandu da, baina mesedez, ez enparanoiatsu!”

Berriz itzal bat agertu zen. Orain ez zen fikziozkoa, erreala baizik. Aitor zen, aitaren lagun mina, eta berehala lasaitu egin nintzen bera ikustean. Txikitatik eza-gutzen nuen. Etxera etortzen zenean, beti txantxetan zegoen nirekin. Oso txorora zenez asko maite nuen. Baina egun horretan arraro ikusi nuen; hala ere ez nion garrantzirik eman. Bat batean esan zidan:

–Nuria, goazen nire etxera!

–Jo, Aitor, barkatuko didazu, baina etxera joan behar dut ama zain daukat eta.

–Nuria, oraintxe bertan etortzeko esan dizut!

–Baina, Aitor, zer duzu? Ez zaizkit txantxa hauek gustatzen.

–Ez dizut berriz errepikatuko! Oraintxe bertan etortzeko diotsut!

–Aitor, beldurtzen nauzu! Geldi, mesedez! Ah, ah...!

Aitorrek besotik hartu ninduen. Ez nuen inoiz horrela ikusi. Ihes egiten saiatu nintzen, baina ezin nuen. Nire besoa indar handiz estutzen ari zen. Bere etxeko atea ireki zuen. Oso urduri zegoen eta eskuak dardarka zituen. Berririo bultzatu ninduen. Jadanik etxe barruan nengoen. Bere logelaraino eraman ninduen eta ezin nuen ihes egin. Orduan musukatzen hasi zitzaidan eta kamiseta kentzen. Denetarik egiten saiatu nintzen arropa ez kentzeko, baina alferrik. Praka jaisten hasi eta bakarrik bularretakoarekin nengoela izugarrizko irribarrea agertu zitzaion aurpegian. Erotuta zegoen! Nire malkoak tantaka jaisten ziren lurrera eta nire oihuak gorrak ziren, inork ez ninduelako entzuten.

Ezin nuen sinetsi gertatutakoa. Zergatik niri? Azkenik, nirekin egin zuen. Jendeak esaten zuen plazera sentitzen duzula, baina nik, momentu hartan ezin nuen. Nazka eta gorroto handia, bai. Era berean izututa, bakarrik sentitzen nintzen. Hori plazera al zen? Ez nuen indarririk ezta janzteko ere. Pasabidetik jantzi nintzen.

Orduan, berriz agertu zen. Ezin nion begietara begiratu. Korrika hasi nintzen, baina kamisetatik hartu eta esan zidan: “Orain aitarengana joan eta esan bortxatu zaitudala... eta hilko zaitut! Entzun ondo! Hilko zaitut! Norbaiti esan diozula jakiten badut, ikusiko duzu! Hiltzeko kapaza naiz! Hilko zaitut! Eta orain alde hemendik.” Atea ireki eta kolpe batez lurrera bota ninduen.

Hamar eta erdiak ziren. Gurasoak oso kezkatuta egongo ziren. Zer edo zer asmatu behar nuen, baina zer? Malkoak euriarekin ez ziren bereizten. Uste dut hori izan zela eskertu nuen gauza bakarra gau hartan. Mina nuen, baina ez fisikoa, barrukoa baizik. Hondatuta sentitzen nintzen.

Gizon bat pasatu zen eta etxera heltzen lagundu zidan, baina nola sartuko nintzen horrela etxera? Azkenik, sartu eta gurasoei Koldorekin topatu nintzela esan nien, ez niola orduari begiratu eta pasatu egin zitzaidala. Logelan sartu, zotinka hasi eta negarrez jarraitu nuen lokartu arte.

Hurrengo egunean amari izugarrizko buruko mina nuela esan nion eta ez nintzen klasera joan. Horrela pasatu ziren egunak, gora eta behera. Aste batean eztarria zen, beste batean burua, hurrengoan tripako mina... Sentitzen nuena ezkutatzen saiatzen nintzen. Kaka hutsa sentitzen nintzen; hobeto esanda, nire bizitza kaka hutsa zen. Ez nuen merezi bizitzen jarraitzea. Lur jota nengoen.

Hilabete bat pasatu nuen klasera joan gabe. Orduan gurasoek zerbait susmatu zuten. Konturatu ziren ez nengoela gaixorik eta institutura bidali ninduten. Ez nuen indarririk ikastetxera joateko. Ezin nuen. Lagunak ikustea, galderak, Koldo... gehiegi zen. Hurrengo bi asteetan piper egin nuen, irakasle batek etxera deitu arte. Amak izugarrizko errieta egin zidan. Oso haserre zeuden, inoiz ez nuelako hori egin momentu horretara arte.

Azkenik, ia bi hilabete ondoren, institutura joan nintzen. Klasean sartu nintzen eta han ikusi nituen denak, hain pozik ni ikusteaz. Baina ezin nuen ezta irribarre faltsu bat ere atera. Ezin nuen. Ez nuen indarririk ezertarako, ez. Disimulatzen saiatu nintzenez, gurasoekin eta lagunekin ondo atera zen. Baina Koldo... Koldo, ez; ezin nuen. Nire lagun mina zen. Jendeak uste zuen nobioak ginela, egun osoan



elkarrekin geundelako, momentu txarretan zein onetan. Mundu osoan gehien maitatzen dudana pertsona da Koldo. Beti sentitu izan dut zer edo zer beragatik, beti. Baina ez nintzen ausartzen. Pentsatzen nuen esaten banion, laguntasuna desagertuko zela.

Begiratu zidan. Ezagutzen nuen begirada hori. Izugarrizko begirada zeukan, zoriontasuna ni ikustean, baina galdera asko ere bai. “Irribarre hori ez da zurea, Nuria. Ezin didazu gezurrik esan. Ezagutzen zaitut, Nuria. Lehenago edo beranduago esan beharko didazu”. Hainbeste zen bere begiek esan ahal zidatena... Begirada hark hil egin ninduen. Ezin nion kontatu. Ez, ezta pentsatu ere. Bestela, zer egin zezakeen Aitorrek nirekin? Denetarik egiteko kapaza zen. Baina zer pentsatuko ote zuen Koldok ni bortxatua izan nintzela jakitean? Erabaki bat hartu nuen; Koldorengandik urrundu beharra nuen. Horrela ez nion kontatu beharko pasatu zitzaidana.

Hilabete bat egon nintzen Koldo saihesten. Begiratzen zidan bakoitzean bere mina sentitzen nuen. Baina, zer pentsatzen zuen? Niretzat erraza zela? Orain bai bakarrik sentitzen nintzela. Ez nuen ia jaten; nire logelan nengoen egun santu osoan. Behin baino gehiagotan burua hiltzea pentsatu nuen. Ez nuen indarrik bizitzaren jarraitzeko. Beldur nintzen. Ez nintzen inortaz fidatzen. Dena den, handik ni neu bakarrik atera behar nintzen. Gurasoak eta lagunak inoiz baino kezkatuago zeuden. Beti galderekin. Hainbeste gorrotatzen nituen galdera horiek...

Hiru hilabete igaro ziren gertatutakoa pasatu zenetik. Patioko ordua zen. Ni beti bezala komunean gelditzen nintzen, baina egun hartan ez. Koldo agertu zen. Ikusterakoan, ibiltzen hasi nintzen kontrako bidean, baina bera nire aurrean jarri zen. Ezin izan nuen ekidin. Orduan hasi zen. Banekien ezingo nintzela kontrolatu.

–Nuria, zer gertatzen ari da? Zer duzu?

–Koldo, ezin dut. Ez jarraitu, mesedez.

–Baina, Nuria, zerbait egin dizut?

–Ez, Koldo, baina ez egin gauzak zailago, mesedez.

–Gauza bat esan behar dizut, orain dela asko esan behar nizuna. Badakit, baina ez dut ausardiarik izan. Barkatu.

–Mesedez, Koldo, ez esan ezer.

–Entzun egin behar didazu. Klasera bueltatu zinenean konturatu nintzen. Nire bihotzak 360 graduko buelta eman zuen zu ikustean. Konturatu nintzen zutaz mai-

teminduta nengoela. Baina era berean konturatu nintzen: irribarre faltsu horiek, argalago zeunden, zure begietan ez zegoen zuk daukazun alaitasun hori... Nuria, noiz kontatuko didazu?

Banekien Koldori ezin niola gezurrik esan. Lur jota gelditu nintzen. Malkoak bi iturri bezala ateratzen ziren nire begietatik. Azkenik kontatu egin nion. Isil-isilik geratu zen. Ezin nuen pentsatu ere egin zer esango zidan. Orduan zera esan zuen:

–Hil egingo dut putakume hori!!

–Ez, mesedez, Koldo! Esan zidan norbaiti kontatzen banion hilko ninduela!!

–Nuria, poliziari esan beharko diozu.

–Ez, ezin dut, ezin dut, ezinezkoa da.

–Nuria, nik lagunduko dizut hemendik ateratzen eta gauza guztietan lagunduko dizut. Ez naiz zutaz inoiz urrunduko. Ondo entzuten didazu? Inoiz ez. Aurrera aterako gara, Nuria.

–Koldo, bakarrik sentitzen nintzen zu gabe. Oso txarto pasatu dut. Gogoratzten dudanean, Koldo... Hain zaila da... Baina zergatik niri?

–Orain ez pentsatu horri buruz. Ez zara inoiz bakarrik egongo.

–Koldo, zu ere nire gustukoa zara, baina ez nizun esan nahi gure adiskidetasuna apurtzeko beldur nintzelako.

–Nuria, ezin dut sinetsi. Hain pozik nago...!

Orduan musu bat eman zidan. Momentu horretan ahaztu egin nuen nire zoritxar guztia. Baina mundura bueltatu nintzen eta esan nion:

–Koldo, zer egingo dugu orain?

–Ni naiz guztia dakien bakarra?

–Bai, zoritxarrez, bai.

–Nuria, poliziari esan beharko diogu.

–Koldo, ezin dut. Aitorrek hil egingo nau.

–Nuria, entzun ondo. Zer duzu nahiago ero hori kalean egotea ala kartzelan, inor ez bortxatzeko berriro? Laztana, ondo pentsatu.

–Ez dakit, ba, Koldo! Beldurra ematen dit.

–Ni zurekin joango naiz. Biok eramango dugu hau aurrera, Nuria.

–Oraintxe bertan izan behar da?

–Ez, zu prest zaudenean.

–Nahiago dut gero eta lasterren egin.

Komisaldegira joan ginen. Nik bernak dardarka nituen. Heldu ginenean, hitz egiten zuen bakarra Koldo zen. Ez nuen indarrik ezta hitz egiteko ere. Poliziak esan zuen gurasoei deitu behar ziela, gertatu zenari buruz informatzeko. Nik “guraso” hitza entzutean zotinka hasi nintzen. Hori gogorrena izango zen. Aitak jakiten bazuen... Ai ama! Aitor hil zezakeen! Koldok besarkatu egin ninduen eta ilea lantzantzen hasi zitzaidan lasaitzeko asmoz, baina ezin ninduen inork lasaitu momentu hartan.

Gurasoak heldu ziren. Amaren aurpegia ikus nezakeen. Oso urduri zegoen, aitaren eskua estutzen zebilen eta. Poliziak aitari kontatu zion pasatu zitzaidana eta egilea nor izan zen. Aitak komisaldegiko atea danbateko batez itxi eta korrika atera zen, ama atzetik oihuka eginez eta Koldo eta biok amaren atzean. Dudarik gabe



banekien nora zihoan aita: Aitorren etxera. Ama negarrez zegoen eta, noski, ni ere bai.

Aitorrek atea irekitzean, haren aurpegia ikusi nuen. Hainbeste sentimendu pasa ziren nire burutik... Nazka, haserrea, ezintasuna, beldurra, mina... Horrenbeste ziren!! Aurreko hiru hilabeteetan zenbat amesgaizto berarekin!!

Bat-batean aitak lurrera bota zuen eta lau ukabilkada eman zizkion sudurrean, begian, ahoan... baina, benetan, ez nuen beragatik penarik sentitu. Aitak sudurra apurtu zion eta gauza gehiago ere, ukabil onak dauzka eta. Hain lasai geratu nintzen poliziak atxilotu zuenean... Bakea sartu zen nire barruan... Lehenengo aldia zen hiru hilabetetan bakea sentitzen nuela.

Koldo eta biok azkenik ateratzen hasi ginen eta Aitorrek bi urtez kartzelan egon behar izan zuen. Kartzelatik atera eta gero, ez zidan nire bizitza osoan berriz aurpegira begiratu. Horrek esan nahi zuen kartzelak zer edo zertarako balio izan ziola. Zenbat urte pasatu diren hau gertatu zenetik! Nire bizitzako kapitulu hau idazten dudan bitartean, Koldo nire ondoan zurrunga dago. Argia amatatuko dut ez esnatzeko.

Nire bizitzako beste kapitulu bat idazterakoan berehala deituko dizuet irakurtzeko, baina ez dut uste hurrengo kapitulua osorik kontatu ahal izango dudanik, bizitza honetatik joateko nire ordua gertu dago eta.



# 1944

Alberto Alonso Fernández  
Ignacio Ellacuria BHI

**1** 944... gehien gorroto dudan urtea... 11 urte besterik ez nituen, baina dena atzo izan balitz bezala gogoratzen dut. Bai, 76 urte ditut, Lukasz dut izena eta Varsoviakoa naiz. Nire amesgaiztoa 1944ko urtarrilaren 16an hasi zen, eta ia urte bat iraun zuen.

1944ko urtarrilak 16  
BOOOM! BOOOM!

–Lukasz, altxatu ohetik, ezkutatu egin behar gara!

–Ama, zer gertatzen da? Zer dira zarata horiek? zergatik egin behar dugu ihes?

–Semea, gero esango dizut.

Horrela hasi zen dena. Etxearen behealdean geunden ezkutaturik. Bertan, amak dena kontatu zidan.

–Lukasz, badakizunez, gu juduak gara. Eta badaude batzuk maite ez gaituztenak.

–Baina ama, zergatik? Esadazu! Edo bestela zuk, aita! Edo zuk, Patrycja!

Patrycja nire arreba zen. 14 urte zituen eta oso maite nuen.

–Lukasz, isil zaitez! Ez gaituzte entzun behar.

Esan zidan Patrycjak negarrez. Bat-batean eztanda bat entzun nuen. Eta gizon batzuk sartu ziren. Denak berdez zihoozen, denak ilehoriak ziren, eta alemanez hitz egiten zuten. Dena oso azkar joan zen hurrengo orduetan. Gogoratzen dut tren batean nengoela, espazio txiki batean, beste 100 pertsonarekin batera. Hizkuntza asko entzuten ziren. Oso beldurtuta nengoen. Nik bakarrik polonieraz nekien eta ez nituen aurkitzen ez gurasoak, ezta Patrycja ere. Trenean 2 egun egon ginen. Bakarrik ur gazia eta arraina ematen ziguten. Bertan, Jakub ezagutu nuen. Bera, hungariarra zen. Ez zuen nire hizkuntza hitz egiten eta 40 urte zituen, baina lagunak egin ginen. Hirugarren egunean trenak mugitzeari utzi zion. Orduan berriro mutil ilehori horiek etorri ziren eta oso umore txarrez, alemanez hitz egiten hasi ziren. Haiei segitu genien. Ez nekien zer gertatzen zen, ezta non zegoen nire familia ere! Hori amesgaiztoa zen. Mutil ilehoriak, nik deitzen nien bezala, egurrezko etxe itsusi batera sartu ninduten hainbat umerekin. Denoi arropa berdina jantzi ziguten. Bertako oheak ez ziren batere erosoak, ez geneukan komunik eta nire txabolana ez zeuden poloniar gehiago. Konturatu nintzenerako, aste bat neraman bertan. Dena hain zen arraroa. Gero eta jende gehiago sartzen zuten txabolana eta gizon ilehoriak lehendik zeuden gizon batzuk eraman zituzten (haiek esaten zuten dutxetara eramaten zituztela) eta ez ziren bueltatzen.

Aste bat bakarrik neraman, gurasorik gabe, lagunik gabe, tratu txarrak jasotzen, aleman klaseak hartzen, ia janaririk gabe. Hori gutxi balitz ezin nuen alde egin, burdinazko hesiak zeudelako eta gizon ilehoriak ez zigutelako uzten. Egun batean 10 egun neramanean, Jakubekin topatu nintzen, eta hitz egiten hasi ginen.

–Kaixo.

–Kaixo, Lukasz, zer moduz?

–Txarto, oso txarto! Ez dakit zergatik nagoen hemen, ez dakit ezer, Jakub.

–Lukasz, zu bezala nago, ez dut nire familia aurkitzen, gauza bat besterik ez dakit nazi hauek gorrotatzen gaituztela.

–Nazi, zer da nazi?

–Begira, badakizu ilehori horiek, arropa berdea daramatenak eta oso oso txarto tratatzen gaituztenak nortzuk diren?

–Bai, noski!

–Horiek dira naziak.

–Baina nik ez diet ezer egin.

–Bai, Lukasz, judua zara.

–Eta horregatik gorroto naute?

–Bai, bakarrik horregatik.

Momentu horretan, nazi bat etorri zen. Ematen zuenez, zerbait entzun zuen eta Jakub eraman zuen. Aleman klase mordoa hartzen nuenez, zerbait ulertu nuen.

–Zer esaten... zara?

–Ni? Ezer ez!... egia besterik ez!

–A bai, isil zaitez ez... edo bestela dutxetara joango zara.

Momentu hartan, negarrez hasi nintzen. Oso txarto sentitzen nintzen, ia ez nuen jaten, ez nuen lorik egiten, zikin nengoen, tratu txarrak jasotzen nituen, bakarrik nengoen...

Txabolara joan nintzen negar egitera. Uste nuen 11 urterekin infernuan nengoela.

Hurrengo egunean, aleman klasera joan nintzen 6 orduz, egun guztietan bezala. Irakaslea oso jatorra zen eta ez zen ilehoria, eta ez zuen arropa berderik janzten. Egun batzuk atzerago esan zidan hango komandante batekin zegoela ezkondua, baina ez zuela maite, gorroto zuela baino. Luzaroan hitz egiten genuen, bera polonieraz ondo mintzatzen baitzen eta primeran egiten baitzuen. Egun batean, dena kontatu zidan.

–Lukasz...

–Bai, Caroline?

–Den-dena kontatuko dizut, baina ezin duzu ezer esan.

–Ondo da.

–Hemen zaude judua zarelako. Zigor bat jasotzeko. 9 urte daramatzagu Munduko II. Gudan eta zenbait pertsonak ez dituzte juduak maite. Horregatik zaude hemen, Esterwegenen.

–Esterwegen?

–Bai, hau kontzentrazio-esparrua da. Hemen pertsona mota asko daude.

–Baina, zergatik?

–Ez dakit, Lukasz, ez dakit.

–Eta nire familia? Aurkituko dut?

–Bai, ziur nago baietz.

Konturatu nintzenerako, 1944ko apirilaren 29a zen. 4 hilabete baino gehiago neramatzan infernu hartan. Ordurako, den-dena ulertzen nuen. Banekien Esterwegen ez zela hotel bat ilehoriek esaten zuten bezala. Banekien ni ere zigortuta nengoela; banekien familia ni bezain gaizki zegoela eta ezin nuen jasan. Lau hilabete generamatzan lan egiten, ezer jaso gabe, dutxatu gabe, ia janaririk gabe, egunero nazien tratu txarrak jasaten. Gero eta ziurrago nekien Esterwegen infernu hutsa zela.

Otsailetik ez nuen Jakuben berririk izan. Horregatik gero eta bakarrago eta ahulago sentitzen nintzen. Bakarrik lagun bat nuen: Caroline. 24 urte besterik ez zituen, baina nire ama izango balitz bezala maite nuen. Egun batean, Alemania osoan festa zuten. Horregatik, oso soldadu gutxi zeuden Esterwegenen. Egun hartan Carolineren eskutitz bat jaso nuen hau esanez:

*Lukasz, gaur oso soldadu gutxi daude, ihes egiten lagunduko zaitut. 16:55ean etor zaitez Reiff koronelaren mintegira”.*

Horrela egin nuen. 16:54ean bertan nengoen. Minutu bat geroago Caroline heldu zen. Ia ez zegoen soldadurik. Carolinerekin bizpahiru kilometro ibili nintzen Esterwegenen barrena. Bat-batean hesi zabal bat zegoen.

–Lukasz, hemendik ihes egin behar duzu. Ez dakit nora joan ahal zaren, ezta zer egin behar duzun ere, baina ziur nago hemen baino hobeto egongo zarela.

Baina nik ez nion kasurik egin, beste gauza batean nengoen pentsatzen. Aita han zegoen 500 metrotara. Beste 100 presorekin, burdinazko kaxa moduko batean sartzen.

–Aitaaaaa!!! Lukasz naiz ondo nago, hemen nago!!!!

–Semea, ezin naiz joan baina trankil, burdinazko kaxa honetan dutxatzera noa!

–Ondo da. Baina hain dira arraroak dutxak, ezta? Beno, ba hemen itxarongo dizut.

–Maite zaitut, semea!

Ez nekien zergatik baina Caroline negarrez hasi zen. Hilabete batzuk geroago jakin nuen zergatik. 15 minutu itxaron genuen, baina aita ez zen sekula irten.

–Lukasz, teniente bat dator korri orain, joan! Tori arropa eta 2 egunetarako janaria.

–Agur, Caroline, mila esker. Ez zaitut inoiz ahaztuko.

Orduetan ibili nintzen. Maiatzaren 6a zen. Hiru egun pasa nituen ibili eta ibili menditik. Azkenean Hällsch izeneko herri txiki batera heldu nintzen. Gose eta egarri nintzen.

Eta etxe bateko atea jo nuen.

–Kaixo, mutikoa, zer nahi duzu?

–Ura mesedezzz!!!

–Zer duzu?

Momentu hartan dena kontatu nion. Adam izeneko gizona zen eta bere emazte Clairerekin bizi zen. Zenbait hilabete egon nintzen haiekin. Banekien naziak nire atzetik zebiltzala baina haiekin oso ondo nengoen. Nire adineko seme bat zuten: Michael. Baina bakarrik larunbatetan ikusten genuen elkar, internatu batean baitzegoen. 1945a heldu zen. Eta egun batean Adam oso pozik sartu zen prentsa zekarrela.

–Lukasz!!! Lukasz!!! begira Munduko II. Guda amaitu da! eta berarekin nazismoa!

–Bai??? Benetan??? Zer pozik nagoen!

–Begira hemen kontzentrazio-esparruetan hil diren pertsonen izen guztiak atera dira.

–Utzi!

Oso urduri jarri nintzen eta izenak begiratzen hasi nintzen. Ez zegoen ama, ez zegoen Patrycja, baina, bat-batean, aita han zegoen: Paul Lovski (1944/05/06 eta gurutze bat). Nik alde egin nuen eguna! Beraz, ez ziren dutxak, hiltegiak baizik. Momentu hartan mundua gainera erori zitzaidan, baina guda amaitzeak eta ama eta Patrycja bizirik egoteak gora ekarri ninduten.

Urteak aurrera joan ahala, egunerokotasuna heldu zen. Hällscheko familiak ikasketak ordaindu zizkidan eta Berlinera joan nintzen ikastera. Gero nire enpresa sortu nuen. Jakub 1966. urtean aurkitu nuen. Lagun onak izan ginen, baina 1997an hil egin zen minbiziak jota. Aita badakit hil egin zela orain dela 65 urte. Luzaroan ibili nintzen ama bilatzen, baina orain dela urte batzuk utzi nion bilatzeari, 109 urte izango zituelako. Patrycjari buruz bakarrik dakit 80 urte dituela, eta ez diodala bilatzeari utziko. Eta Carolinek fundazio bat sortu zuen. Oso pertsona ona da. Bai, bada. 88 urte ditu, aurten 89 beteko ditu. Espainiara joan zen bizitzera, eta nik, ahal dudanean bisitatzea joaten naiz.

Hori izan zen nire amesgaiztoa eta ia bizitza galdu nuen. Hori, orain dela 65 urte izan zen. Zorionez, gaur egun gauzak aldatu egin dira, eta ez dira hain handiak erlijioen eta arrazen arteko desberdintasunak. Hala ere, oraindik bide luzea geratzen da normaltasuna lortzeko.

Adibidez, ni Munichen bizi naiz. Bai, hainbeste tratatu txar jaso nuen herrialdean, baina Alemaniak ez du errua, ezta bertako biztanleek ere. Errua arraza eta kulturen arteko adiskidetasuna onartzen ez duenak du.

*Lukasz Lowski*



## Mediku magikoa

*Galder Fernandez-Vega Gonzalez  
Gabriel Aresti BHI*

**O**rain dela urte asko, Lekeition arrantzale txiro baina guztiok maitaturiko gizona bizi zen.

Arratsalde batean, itsasontzi patroia zen Lekeitioko arrantzalerik famatuenetariko bat, bihotzekoak jota, konortetik gabe jausi zen kaian.

Handik pasatzen zirenek txalupan eraman zuten eta osagilearen bila joan ziren. Hau arineketan etorri zen. Ondo aztertu ondoren, konortea itzultzen ahalegindu zen, baina dena alferrik.

Une horretan gure gizona kaitik pasatu zen, patroia zegoen lekura hurbildu zen eta gertatuko guztiaz jabetu zen.

Handik irtetea gizon batekin topo egin zuen. Gizon horrek hauxe esan zion:

–Osagileak ez du patroia salbatuko, baina zuk zeuk bai, nik esaten dudana betetzen baduzu.

–Esan, bada, eta horrela egingo dut.

–Zoaz sukaldara, zartagin batean jarri olio, koipea, ezti apur bat eta sutan urtu dena.

Ondoren, nahastu eta gero, hartu apurtxo bat koilaraz eta kopetan jarri.

Horrela egin zuen eta patroia suspertu egin zen. Guztiak harrituta geratu ziren. Zorionak eman zizkieten gure arrantzaleari eta bera poz-pez urrunduz, baina kale erdian gizon berezia agertu zen berriro hauxe esanez:

–Ikusi duzu nola osatu den patroia? Bada, hemendik aurrera gaixotasun guztiak osatuko dituzu. 100 urte inguru biziko zara, baina arratsaldero zure etxeko teilatura begiratuko duzu eta “horma-belarra” izeneko belarra hazten denean prepara zaitez hiltzeko, zure ordua izango da-eta.

–Urteak eta urteak pasatu eta gero lekeitiarrak zutaz oroituko dira- jarraitu zuen esaten.

Denbora pasa ahala, ospetsua egin zen jendea sendatzeagatik. Erregeek, gizon eta emakume dirudunek, den-denek nahi zuten arrantzaleak sendatzea.

Urteak joan ziren eta 90 bete zituenean egunero begiratzen zuen horma-belarra hazita zegoen ala ez. “Mediku” deitzen zioten adinagatik zein jakituriagatik.

Baina udako egun batean, iluntzean, horma-belarra ikusi zuen eta emazteari esan zion:

–Neure ordua ailegatu da; laster hilko naiz.


Eta etxetik irteten “Ondarzabal” izeneko hondartzara joan zen eta erdi-erdian bere “lagunagaz” topatu zen, jendea sendatzen irakatsi zion gizonarekin.

Oraingo honetan bere benetako itxura zeukan, Heriotza zen.

Lepoan leunki laztandu zuen eta arrantzalea harri bihurtu zen, eta hantxe dago, hondartza erdian.

“Mediku Magikoa” izenez ezagutzen dute lekeitiarrek eta handik doazenek ikus dezakete. Horrela bete zen emandako hitza: “Irudi honekin zure izena gogoratu izango da”.





Ivan Hernandez Arranz  
Ignacio Ellacuria BHI

**I**rla bakarti batean gaude. Irla honetan frantziskotar komentu bat dago, klausurako lau fraide dituen. Honek esan nahi du ezin direla monasterio horretatik atera. Sukarrietako jendea da janaria, liburuak, eskuizkribuak, tinta, pergaminoak eta berriak eramateaz arduratzen dena. Baseliza San Antonio de Paduaren izenean eraikita dago. Hurrengo hauek fray Juanen idatziak dira, bertoko San Frantziskoren ordenako buruzagia. Txatxarramendin, fray Pelayo, sukaldaria; fray Mariano, latineko itzultzailea eta fray Serifos, grekoko itzultzailea bizi dira elkarrekin, eguraldiari aurre eginez.

*Jaungoikoaren 1608. urtearen otsailaren 14a*

*Gaur gauza asko pasatu dira. Ortuko azenarioak ondo hiazten ari dira. Fray Pelayok gaurko txipiroietan jarri ditu, baina oraindik ez daude helduta. Dirudienez, ez ditu ondo garbitu lur zaporea dutelako, eta fray Serifosek zizare bat aurkitu du bere plateretan. Nik, goizeko*

paseoa ematen ari nintzenean, untxi txiki bat ikusi dut bere gordelekura sartzen. Bihar bere gurasoak ehizatzen saiatuko naiz fray Marianoren laguntzarekin, bera baita gutako gazteena eta indartsuena; ni, berriz, gero eta zaharrago nago gauza hauek egiteko. Fray Seriosek "Patroklou kea ydra" liburuaren itzulpena amaitu du. Bihar liburua Pauko katedralera itzultzeko eskatu behar diot Sukarrietako nagusiari.

Jaungoikoaren 1608. urtearen otsailaren 18a

Ezin dugu untxia ehizatu, itzelezko galerna dago eta. Olatuek Bermeoko kai-muturraren gainetik salto egiten dute. Egunak daramatzagu refektoriumean eskuizkribuak itzultzen. Horrela jarraituz gero, lan guztia amaituko dugu. Ibaiaren bokalean gaude eta izugarritzko olatuak heltzen dira. Gizagaixoak Izaron daudenak! Jaunaren laguntza izan dezatela!

Jaungoikoaren 1608. urtearen otsailaren 27a

Ekaitza ez da baretzen; bere indar guztiarekin ari da gaur erasotzen eta Portugaletik zetorren galeoi bat harrapatu du itsasoak; lehorrera hurbildu ezinik dago. Gaur, egun latza izango dute. Guk ia eskuizkribu guztiak amaitu ditugu. Baina honek iraunez gero ezin izango gara bizirik atera. Janaria agortzen ari zaigu, nahiz eta orain dela hamar egun janari dezente ekarri ziguten. Jaungoikoak salba gaitzala!

Jaungoikoaren 1608. urtearen otsailaren 28a

Gaur goizean Portugaletik zetorren galeoiak amore eman du eta Mundaka aurrean harkaitzen kontra jo du. Arratsaldean, gorpu bat ikusi dugu bokaletik gora egiten. Janaria agortu egingo zaigu bihar, mirari bat gertatzen ez bada...

### *Jaungoikoaren 1608. urtearen otsailaren 29a*

*Eskerrak jaunkoari! Ekaitza amaitu dela dirudi, baseliza zutik utzi digu, herrian ere ez dute janari askorik baina jaten eman digute. Herriko gazteak galeoian zetozen bidaiarien gorpuen bila joan dira. Arratsaldean, hildakoen ohoretan meza ospatu dugu eta kanposantua-  
ren izkina batean lurra ematen ari gintzaizkiela, oihuak eta kolpeak entzun ditugu. Arineketan lurra kendu eta ikusi dugu. Gazte bat zen, ia umea. Zurbilduta zeukan aurpegia, beldur aurpegia zuen. Nagusia-  
ren etxera eraman dute hobeto zaintzeko.*

.....

### *Jaungoikoaren 1608. urtearen martxoaren 2a*

*Inkiszio Santuaren delegatu batzuk etorri dira mirari horren berri izan dutenean. Fray Mariano santifikatu nahi dute, bera momentu horretan meza ematen ari zelako. Gaur lekukoei galdetzen egon dira.*

.....

### *Jaungoikoaren 1608. urtearen martxoaren 3a*

*Mariano santua dela esan dute Inkiszioaren delegatuek, Gaztea hobeto dago eta San Marianori eskerrak ematera etorri da. San Maria-  
no Bordelera joango da, gotzain izendatuko dute; fray Serifos Grezia-  
ra itzuliko da familiarekin eta fray Pelayo Gernikako taberna famatu  
batean lan egiten hasiko da, abadetza utziko du. Eta ni, zer? hemen  
geratuko naiz egunero egunerokoa kontatzen.*



# Aurkibidea

|                         |   |
|-------------------------|---|
| Alkatearen agurra ..... | 3 |
| Sariak .....            | 4 |

## A Kategoria (Lehen Hezkuntza, 3-4. mailak)

|                                                            |    |
|------------------------------------------------------------|----|
| - Eguzki ilejalea.....                                     | 9  |
| - Bi anaia detektibeak eta munduko diamante handiena ..... | 12 |
| - Pirata gominola eta gominolazko altxorra .....           | 15 |
| - Urrezko perla .....                                      | 18 |
| - Pitxer magikoa .....                                     | 20 |
| - Musikagaitik zoratuta .....                              | 23 |
| - Espazioko robota .....                                   | 24 |

## B Kategoria (Lehen Hezkuntza, 5-6. mailak)

|                                            |    |
|--------------------------------------------|----|
| - Lore bat ospitalean .....                | 29 |
| - Elastikoen merkealdia .....              | 32 |
| - Liburutegiaren abentura .....            | 34 |
| - Gurasoak baino hobeto amets on bat ..... | 37 |
| - Lurra eta unibertsoa.....                | 39 |
| - Hitzezko hirira .....                    | 41 |
| - Ur tanta .....                           | 44 |
| - Utzi nire ilea bakean .....              | 47 |

## C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2. mailak)

|                         |    |
|-------------------------|----|
| - Eta kitto .....       | 53 |
| - Ahulezia bitxia ..... | 55 |
| - Nire ipuina.....      | 58 |

|                                          |    |
|------------------------------------------|----|
| - Istorio interesgarriena Zuhatzan ..... | 60 |
| - Diruaren labirintoaren barnean .....   | 64 |
| - Gizakion zoriontasuna .....            | 67 |

### **D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 3-4. mailak)**

|                                  |    |
|----------------------------------|----|
| - Hazi nahi ez zuen mutila ..... | 71 |
| - Askatasunaren bila .....       | 73 |
| - Oroitzapen beltzak .....       | 76 |
| - 1944 .....                     | 81 |
| - Mediku magikoa .....           | 86 |
| - Egunero egunerokoa.....        | 88 |